

# GELA EGONKORREKO IKASLEAK ERREALITERA HURBILTZEN

Ikaskuntza-zerbitzua metodologiaren bitartez diseinatutako proposamena



## GRADU AMAIERAKO LANA

Lehen Hezkuntzako gradua

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA

UPV/EHU

*Egilea:* Eider Ochoa García-Abad

*Zuzendaria:* Maitane Basasoro Ziganda

*Deialdia:* 2024ko uztaila

## **Laburpena:**

Gela egonkorrak errealitatearekin lotzea erronka izaten jarraitzen du hezkuntza inklusiborako. Horregatik, Gradu Amaierako Lan honek autismoa duten gela egonkor bateko bost ikasleren eta auzoko denda baten arteko lankidetzaz uztartzen du ikaskuntza-zerbitzu metodologia erabiliz. Autismoari, gela egonkorrei eta aplikatutako metodologiari buruzko azterketa teoriko baten ondoren, ikasleek tokiko dendarako bisita-txartelak egin zituzten. Ondoren, eguneroko bat erabili zen proiektuaren emaitzarik esanguratsuenak jasotzeko, azkenik, agerian utziz ikaskuntza egoera errealekin konektatzeak ikasleengan eragin positiboa duela.

*Hitz gakoak: autismoa, gela egonkorra, ikaskuntza-zerbitzua*

## **Resumen:**

Vincular las aulas estables con la realidad sigue siendo un reto para la educación inclusiva. Por eso, este Trabajo de Fin de Grado aborda la colaboración entre un aula estable con cinco alumnos con autismo y una tienda del barrio, utilizando la metodología aprendizaje-servicio. Tras una revisión teórica sobre el autismo, las aulas estables y la metodología aplicada, los alumnos realizaron tarjetas de visita para la tienda local. Posteriormente, se usó un diario para recoger los resultados más significativos del proyecto, finalmente, evidenciando el impacto positivo en los alumnos al conectar el aprendizaje con situaciones reales.

*Palabras clave: autismo, aula estable, aprendizaje-servicio*

## **Summary:**

Linking the stable classrooms with reality continues being a challenge for inclusive education. For this reason, this Final Degree Project addresses the collaboration between a stable classroom with five students with autism and a neighborhood store, using the service-learning methodology. After a theoretical review on autism, stable classrooms and the methodology applied, the students made business cards for the local store. Subsequently, a diary was used to collect the most significant results of the project, finally, evidencing the positive impact on students by connecting learning with real situations.

*Key words: autism, stable classrooms, service-learning*

# AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b>	<b>4</b>
1.1. Lanaren justifikazioa	5
<b>2. Marko teorikoa</b>	<b>5</b>
<b>2.1. Ikaskuntza zerbitzua</b>	<b>5</b>
2.1.1. Zer da ikaskuntza zerbitzua?	5
2.1.2. Ikaskuntza zerbitzuaren faseak	6
2.1.3. Proposamen inklusiboa	7
2.1.4. Ikasketa zerbitzuaren onurak	7
2.1.5. GrAL eta I+Z	9
<b>2.2. Autismoaren nondik norakoak</b>	<b>10</b>
2.2.1. Zer da?	10
2.2.2. Autismoaren ezaugarriak	11
2.2.3. Autismoa eta generoa	11
2.2.4. Autismoaren sailkapena	12
<b>2.3. Autismoa hezkuntza eremuan</b>	<b>13</b>
2.3.1. Hezkuntza modalitateak eta neurriak	14
2.3.1.1. Gela egonkorra	14
2.3.2. Esku-hartze metodoak	16
2.3.2.1. TEACCH metodoa	16
2.3.2.2. ABA programa (Applied Behavior Analysis)	17
<b>2.4. Zubiak eraikitzen: enplegua eta autismoa</b>	<b>17</b>
<b>2.5. Ikasleei ematen zaien trataera</b>	<b>18</b>
<b>3. GRALaren helburuak</b>	<b>19</b>
<b>4. Metodoa</b>	<b>21</b>
4.1. Eszenatokiaren deskribapena	21
4.2. Parte-hartzaileak	22
4.3. Esku-hartzearen diseinua eta prozedura	23

4.4. Informazioa jasotzeko tresna	26
4.5. Informazioaren analisia	26
<b>5. Emaidzak</b>	<b>28</b>
5.1. Planifikazioa	28
5.2. Esku-hartzea martxan	30
5.3. Harremanak	31
5.4. Sentipenak	32
5.5. Esperientziak eta anekdotak	34
5.6. Gertaera kritikoa	34
5.7. Ebaluazioa	34
<b>6. Ondorioak</b>	<b>36</b>
6.1. Balorazioa	39
<b>7. Eranskinak</b>	<b>47</b>



## 1. Sarrera

Hezkuntza inklusiboaren esparruan, autismoa hezkuntza premia berezien barne sartzen da, horregatik, funtsezkoa da hezkuntzako profesionalek beren ezaugarriak sakon ulertzea eta irakaskuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzeko beharrezko laguntza emateko prest egotea.

Ildo honetatik, ikasleei zein komunitateari mesede egiten dien ikaskuntza zerbitzua metodologia aurkezten da; izan ere, ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzen du benetako beharrei heltzen dieten proiektuetan, euren garapen akademiko, sozial eta emozionalari laguntzen diona.

Gratu Amaierako Lan hau Campus Bizia Lab iraunkortasunerako hezkuntza sustatzeko programaren baitan garatzen ari den "Errealitateak eraldatuz: Unibertsitatea eta Komunitatea, hezkuntza Ikaskuntza-Zerbitzuan oinarritutako Gradu eta Master Amaierako Lanen bitartez humanizatzeko xedearekin lanean" proiektuaren barnean kokatzen da. Lan honetan, ikaskuntza-zerbitzua metodologia erabiliko da, gela egonkor bateko autismoa duten ikasleek beren ingurune errealekin lotura handiagoa duten jarduerak egin ditzaten. Gelaren eta tokiko denda baten arteko lankidetzaz ezarriko da, hain zuzen ere, ikasleek curriculum-helburuak lortzeko lan egiten duten bitartean, bisita-txartelak diseinatuko dituzte dendarako.

Garapen Iraunkorreko Helburuei dagokienez, nire lanak bi helburu betetzea du xede. Lehenik eta behin, 4. helburua, kalitatezko hezkuntzaren alde egiten duena, eta, bigarrenik, 10. helburua, gizarte-desberdintasunak murriztean oinarritzen dena. Izan ere, curriculum programan agertzen diren trebetasunak benetako proiektu batean garatzean, ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzen dute (4. helburua). Gainera, proiektuak gizarte desberdintasunak murriztea sustatzen du (10. helburua), ikasle guztiei, bereizketarik gabe, tokiko komunitatearekin elkarreragiteko eta lan egiteko aukera ematen baitie.

Lan honetan zehar, hainbat alderdi jorratuko dira. Alde batetik, sakon aztertuko dira zerbitzuaren metodologia, haren faseak, hezkuntza-inklusiorekin duen lotura eta eskaintzen dituen onurak eta bestetik, autismoaren ezaugarriak, gela egonkorren berezitasunak eta horietan erabilitako metodologiak aztertuko dira. Azkenik, gela

egonkorrean egindako zerbitzu-ikaskuntzako proiektua aurkeztuko da, ikasleen garapen integralean duen eragina azpimarratuz.

### **1.1. Lanaren justifikazioa**

Gela egonkorren existentzia azken urteetan hautsak harrotu dituen gaia dugu. Izan ere, batzuk ikasleen integrazioari ekarpena egiten diotela defendatzen dute eta beste batzuek, aldiz, diskriminazio metodo izaten jarraitzen dutela deritzote. Aurten, hiru urtez graduako praktikak egin ondoren, lehen aldiz gela egonkor batekin harremanetan jartzeko aukera izan dut. Niretzat, ezkutuko errealitate bat aurkitzea suposatu du, hezkuntza berezian espezializatuta egon arren, ez nekielako zer hezkuntza erantzun ematen zitzaien ikasle kolektiboari, nire kasuan, autismoa zeukaten ikasleei.

Aurrekoaren ildotik, ikasle bakoitzak bere curriculum indibidualizatua zuen, bere premia espezifikoari erantzuna emateko diseinatua. Hala ere, ikuspegi pedagogikoa aztertzean, tutoreak eta nik bat egin genuen errealitatearekin lotura handiagoa zuten materialak eta jarduerak erabiliz hezkuntza prozesua aberasteko aukerarekin. Orduan sortu zen tokiko denda batekin lankidetzaz ezartzeko eta haietzako bisita-txartelak garatzeko ideia, ikasleei, beren hezkuntza helburuetarantz aurrera egiten zuten bitartean, trebetasun praktikoak eskuratzeko aukera eskainiz.

Laburbilduz, lan honek ikaskuntza zerbitzuaren metodologia aurkezten du gela egonkor baten eta haren ikasleen benetako beharrari heltzeko tresna gisa, ikasleen ikaskuntza-prozesua hobetzeko garrantzia nabarmenduz.

## **2. Marko teorikoa**

### **2.1. Ikaskuntza zerbitzua**

#### **2.1.1. Zer da ikaskuntza zerbitzua?**

Ikaskuntza-zerbitzua (I+Z) funtsezko bi prozesu biltzen dituen hezkuntza-proposamena da. Alde batetik, ikaskuntza-prozesuko diziplinako ezagutzak, curriculumeko edukiak, balioak, praktikak eta hausnarketak hartzen ditu barne eta bestetik, komunitateko kideekin koordinatuta gauzatutako zerbitzu solidario bat bereizten da, ingurune hurbilaren gabezia sozial nabariei aurre egiteko eta horiek hobetzeko. Laburbilduz, I+Z,

ikaskuntza akademikoaren eta komunitatean parte hartzearen fusio gisa definitzen da, elementu horiek proiektu integral eta egituratu batean uztartuz (Gamito, 2022).

Zerbitzurako ikaskuntza praktika konplexua da aldi berean. Hau da, balioak adieraztean, parte-hartzaileak horiek bizi eta beren esperientzian barneratzen ditu. Hori dela eta, balioen adierazpena sozialki aktibatzean, pertsona bakoitzak jorratutako balioak bere portaeraren eta eguneroko bizimoduaren barne hartzea erraztu egiten du (Martín et al., 2021).

Tapia et al.-en (2017) arabera, ikaskuntza-zerbitzuan funtsezko hiru ezaugarri identifikatzen dira: lehenik, komunitate batean premia nabariak jorratzera bideratutako zerbitzu solidarioko ekintzak; bigarrenik, ikasleen parte-hartze aktiboa plangintzatik ebaluazioraino; eta, hirugarrenik, ikaskuntza edukiekiko lotura, curriculumak, hausnarketa eta herritartasun eta ikerketa gaitasunen garapena barne hartzen dituenak.

Gainera, zerbitzurako ikaskuntza ez da boluntariotza batekin nahastu behar; izan ere, gizartea hobetzeaz gain, hezkuntza-helburuak lortzea ere badu xede gisa (Red de Aprendizaje-servicio de las Universidades Catalanas, 2019).

### **2.1.2. Ikaskuntza zerbitzuaren faseak**

Gómez-Chacón et al.-ek (2020) adierazten dutenez, unibertsitate edo beste hezkuntza erakunde formal batean, zerbitzurako ikaskuntzako metodologiaren aplikazioak hiru etapa ditu: prestakuntza, gauzatzea eta ebaluazioa. Etapa horiek ez dute beti progresio uniforme izaten, eta baliteke ikasleen ezaugarrien eta proiektu espezifikoen arabera banaketa gehigarriak behar izatea.

Hasierako etapak, prestaketa etapak, ideien zirriborroa, harremanak ezartzea eta proiektuaren plangintza eskatzen du. Gauzatze etapan, proiektua prestatzeko, gauzatzeko eta taldearekin elkarlanean ixteko prozesuak integratzen dira. Azkenik, prozesua etorkizunean beste proiektu bat aurreikusteko aukera emango duen ebaluazio fasearekin amaitzen da.

## 1.taula

Ikaskuntza-zerbitzuko faseak.

<b>PRESTAKUNTZA</b>	1	Ideiaren zirriborroa
	2	Harremanak ezartzea
	3	Proiektuaren plangintza
<b>GAUZATZEA</b>	4	Proiektua prestatu
	5	Proiektua gauzatu
	6	Proiektua ixteko prozesua
<b>EBALUAZIOA</b>	7	Ebaluatu

**Iturria:** Norberak egina, Gómez-Chacón et al.-en (2020) oinarritua.

### 2.1.3. Proposamen inklusiboa

Serrano eta Ochoa (2019) adituek diotenez, hezkuntza inguruneetan I+Z txertatzean, talde bateko kideen artean dauden desberdintasunak hautematen dira, modu honetan, aniztasuna aintzat hartzean eta baloratzean inklusioaren sustapenari mesede eginez. Zentzu horretan, funtsezkoa da inklusiorako bidea etengabeko hobekuntzako prozesua dela nabarmentzea, beharren identifikazioa gakoa eta xedeetariko bat izanik.

Hau honela, autoreek hurrengoa azpimarratzen dute: “Ikaskuntza-zerbitzuak bazterkeriak dituen barrerak apurtzeko aukera ematen du, eskola eremua haurren parte-hartzea sustatzeko erabiltzen baita, gizarte sareak sendotuz, elkarlana sustatuz eta haurrak komunitatearen aurrean positiboki kokatuz” (Serrano eta Ochoa, 2019, 52. or.).<sup>1</sup>

### 2.1.4. Ikasketa zerbitzuaren onurak

Zerbitzurako ikaskuntzan, bi norabidetako onurak sortzen dira: ikasten denak eskaintzen den zerbitzua hobetzen du, eta zerbitzuak zentzua ematen dio ikasten denari.

---

<sup>1</sup> Euskarara itzulitako zita. Jatorrizko hizkuntzan: El aprendizaje-servicio permite romper las barreras de la exclusión, al abrir el espacio escolar a la participación de la infancia, fortaleciendo las redes sociales de apoyo desde el aula escolar, promoviendo el trabajo colaborativo y el posicionamiento positivo de la infancia ante la comunidad. (Serrano eta Ochoa, 2019, 52. or.).

Metodologia honi esker, askotan eskoletan banatuta egon ohi diren bi zati konektatzen dira, hain zuzen ere, zerbitzua eta ikaskuntza (Batlle, 2020).

Oro har, Cañadasek (2021) autore ezberdinen ekarpenak kontuan hartuta, abantailak funtsezko sei dimentsiotan sailkatu zituen:

## 2.taula

Ikasketa zerbitzuaren onurak.

DIMENTSIOAK	ONURAK
<b>Akademikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Ikasketa-arloko ikaskuntza espezifikoak indartzen ditu.</li> <li>● Kalifikazioak eta errendimendu akademikoa hobetzen ditu.</li> <li>● Trebetasun kognitiboak garatzen ditu.</li> </ul>
<b>Konpetentzia soziala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Pertsonen arteko trebetasunak eta gizarte-harreman sendoak sustatzen ditu.</li> <li>● Akordioak eta lidergo eraginkorra lortzeko gaitasuna errazten du.</li> </ul>
<b>Konpetentzia kultural eta zibikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Etnia eta populazio-aniztasuna ulertzea sustatzen du.</li> <li>● Ikusmoldeen eta sinesmenen eraldaketa errazten du.</li> <li>● Gizarte erantzukizunaren garrantzia nabarmentzen du.</li> </ul>
<b>Pertsonala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Autoestimua eta auto errekonozimendua indartzen ditu.</li> <li>● Norbanakoak motibatzen eta ahalduntzen ditu.</li> </ul>
<b>Profesionala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Bide profesional berriak irekitzen ditu.</li> <li>● Ikasketa hautaketa berresteko balio du.</li> </ul>
<b>Etikoa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Gogoeta etikoen aplikazioa sustatzen</li> </ul>

**Iturria:** norberak sortua, Cañadas, 2021ean oinarritua.

Laburbilduz, I+Z ikasgelako mugak gainditzen dituen eta gizarte dimentsiotan eragin positiboa duen metodologia ahaltsu gisa definitu daiteke. Bazterkeria-oztopoak hausten dituzenez, gizarteratzea eta ekitatea sustatzen ditu, guztien parte-hartze aktiboa ahalbidetuz. Gainera, gaitasun akademikoak, sozialak, kulturalak, zibikoak, pertsonalak, profesionalak eta etikoak garatzean, norbanakoen eta komunitateen hazkunde integralerako katalizatzaile bihurtzen da. Ikuspegi horrek zuzenean parte hartzen dutenei mesede egiteaz gain, gizarte kohesionatuagoa eta bidezkoagoa eraikitzen laguntzen du, gizartearen maila guztietan eragin nabarmena sortuz.

### 2.1.5. GrAL eta I+Z

I+Z hezkuntza etapa guztietara bideratuta dago, izan ere, ikasle guztiak ikaskuntza zerbitzuaren bidez, prozesu eraldatzaileak aurrera eramateko gai direla uste da; esate baterako, beren eskolatik gertu dagoen parkea konpondu dezakete, aitona-amonen bakardadea arindu dezakete edota haur txikiagoei ipuinak kontatu diezaiokete (Batlle, 2020).

Hori horrela, Campus Bizia Lab Programa, unibertsitatean iraunkortasun erronkei aurre egiteko sortua, administrazioko langileen, ikasleen eta irakasleen arteko lankidetzaz bultzatzen duen ekimena da. Alegia, ikasleen artean I+Z bezalako praktika eraginkorrak garatzea du helburu, Gradu Amaierako Lanen (GrAL) edo Master Amaierako Lanen (MAL) bidez (Euskal Herriko Unibertsitatea, d. g.).<sup>2</sup>

Bestalde, 2015eko irailaren 25ean, munduko liderrek bost ardatz (planeta, pertsonak, oparotasuna, bakea eta aliantzak) jorratzen dituen garapen jasangarrirako agenda berri bat sortu zuten. Agenda hori 17 Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH) nagusitan zehazten da, pobrezia desagerrarazteko eta ongizate globala sustatzeko asmoarekin (Nazio Batuak, 2015).

---

<sup>2</sup> Gradu amaierako lan hau Campus Bizia Lab programa berritzailearen barruan kokatzen da. Zehazki, I+Z metodologia erabiliko da, garapen akademikoa ez ezik, komunitatean ere eragina izateko.

Ildo honetatik, ikasleak bidegabekeriaren eta desberdintasunen aurrean sentsibilizatu ez ezik, ikasketa zerbitzuak modu aktiboan ere konprometitzen ditu Garapen Iraunkorreko Helburuekin. Beraz, ezagutzak eta trebetasunak beren ingurunea hobetzeko aplikatzean, gaitasunak garatu eta gizarte aldaketaren eragile bihurtzen dira ikasleak (Batlle, 2020).

Hain zuzen ere, Gamitok (2022) Euskal Herriko Unibertsitatean ikaskuntza zerbitzua metodologia erabilitako gradu amaierako lanen bitartez hurrengo helburuak lortzea proposatzen du:

- 4. helburua: kalitatezko hezkuntza
- 5. helburua: genero-berdintasuna
- 10. helburua: gizarte ezberdintasunen murrizketa

Horrez gain, unibertsitateak sortutako 17+1 helburuari erantzutea planteatzen du, euskara, euskal kultura eta eleaniztasuna kontuan hartzen duena.

Horrenbestez, Gradu Amaierako Lan honetan, Campus Bizia Lab programaren barruan, I+Z metodologia erabiltzeko erabakia proiektu akademiko bat egiteko haratago doa. Metodologia hori integratzean, garapen pertsonala eta akademikoa sustatzeaz gain, komunitatearen benetako erronkei heldu nahi zaie, Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) bat etorritik. Hala, GrAL honek komunitatearen barruan dauden behar errealak asetzeko balio du.

## **2.2. Autismoaren nondik norakoak**

### **2.2.1. Zer da?**

Alcalá eta Ochoak (2022) Autismoaren Espektroaren Nahasmendua (AEN) garapen neurologikoaren nahasmendu gisa definitzen dute, gizarte elkarreraginean zailtasunak, hitzeko eta hitzik gabeko hizkuntza garatzeko mugak, eta jokabide errepikakorrak eta interes mugatuak izateagatik nabarmentzen dena. Gainera, sozializazio prozesuan zailtasunak izateaz gain, autismoa diagnostikatzeko jokabide errepikakorrak edo interes oso espezifikoak baloratzen direla aipatzen dute.

### 2.2.2. Autismoaren ezaugarriak

Barthélémy et al.-ek (2019) nahiz eta bizitzako lehengo hilabeteetan autismoa agerikoa ez izan, alerta goiztiarrak azkar ebaluatu behar direla defendatzen dute. Horrez gain, autismoaren lau ezaugarri bereizten dituzte, beti ere, horietako ezaugarriren bat izateak, autismoa izatea suposatzen ez duela nabarmenduz eta bestetik, ezaugarri jakin batzuk ez izateak diagnostikoa baztertzen ez duela adieraziz.

Lehenik eta behin, **komunikazioari** dagokionez, hizkuntzaren ulermenean nahasmendua ageri daiteke, hala nola, erantzunik eza izatean norbanakoaren izena aipatzen denean. Oro har, hitzezko zein hitzik gabeko komunikazioaren garapenean atzerapenak identifika daitezke. Horregatik, kontuan hartu beharreko alderdiak dira elkarrekiko begirada egokirik ez izatea eta testuinguru adierazleei erantzunik ez ematea.

Bigarrenik, arlo **sozialeko** seinale garrantzitsuen artean, imitaziorik eza, besteen emozioak ulertzeko zailtasunak eta berotasun emozionala edo plazera adierazteko ezintasuna aurkitzen dira. Era berean, jolas sinbolikoa eta irudimentsu mugatua dira nabarmen.

Hirugarrenik, **interes estereotipatu eta errepikakorrak** esanguratsuak dira. Estereotipiak, aldaketarekiko erresistentzia eta objektu eta jolasen erabilera errepikakorra nagusitzen dira. Halaber, errutina oso markatuak eta interes oso mugatuak izan ohi dituzte.

Amaitzeko, zentzumen-estimuluekiko **hiper edo hipo erreaktibotasuna** ikusten da, hau da, ingurunean ezohikoak diren interesak agertzen dira, inguratzen dituen munduarekiko elkarrekintza ahula erakutsiz.

### 2.2.3. Autismoa eta generoa

Gaur egun, 68 jaiotzako autismo kasu bat dagoela kalkulaten da, bost aldiz ohikoagoa izanik gizonetan emakumeetan baino (Centers of Disease Control and Prevention, Alcalá eta Ochoa, 2022an aipatua).



Hervás (2022) adituak gaur egun autismoa emakumeengan berandu identifikatzen eta diagnostikatzen dela azpimarratzen du. Maiz diagnostiko okerrak jaso ohi dituzte emakumeek, eta horrek tratamendu goiztiarra jasotzea eragozteaz gain, tratamendu desegokiak jasotzeko arriskua handitzen du.

Hori horrela, autore berberak autismoa emakumeen artean ez hautemateko faktore ezberdinak bereizten ditu. Lehenik eta behin, **alderdi klinikoari** dagokionez, mutilek gizarte interes txikiagoa erakusteko tendentzia dute, eta neskekin alderatuta, ez dute hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioaren koordinazio hain eraginkorra izaten.

**Autismoaren adierazpenari** erreparatuz, mutikoez neskek baino motibazio sozial txikiagoa erakusteko joera dute, nesken diagnostikoa zaildu dezakeena. Horrez gain, **trebetasun kognitibo sozialen** esparruan, mutilek neskek baino enpatia gutxiago izaten dute, eragina izan dezakeena besteen emozioak eta ikuspegiak ulertzeko gaitasunean. Azkenik, **kamuflajea edo sintomen konpentsazioa** aipatzen ditu autoreak, neskek, mutilek ez bezala, imitazioa talde sozialetan sartzeko erabiltzen ohi dutela esanez eta horrek identitate-arazoak eragin ditzakeela nabarmenduz.

#### 2.2.4. Autismoaren sailkapena

DSM-5ean, norbanakoaren dependentzia mailaren arabera, autismoa arina, ertaina edo larria bezala sailkatzen da. Hau da, diagnostikoa egiterakoan, komunikazioa eta jarrera baloratzen dira eta gizabanakoak behar duen laguntza maila aintzat hartuz, laguntza “gehiegi”, “asko” edo “laguntzaren bat” behar duela adierazten da (Grosso, 2023).

Aurrekoaren ildotik, Martín et al.-ek (2022) jaso behar duten laguntza mailaren arabera, 3 zehaztapen maila bereizten ditu; zehatz mehatz, 1. mailako ("laguntza behar du"), 2. mailako ("laguntza handia behar du") eta 3. mailako ("oso laguntza handia behar du") autismoa.

## 1.irudia

Autismoaren hiru maila funtzionalak.

### Autismoaren hiru maila funtzionalak



#### 1. mailako AEN

Laguntza behar du



#### 2.mailako AEN

Laguntza handia behar du



#### 3.mailako AEN

Laguntza oso handia behar du

**Iturria:** norberak sortua.

### 2.3. Autismoa hezkuntza eremuan

Eskola eremuan behar bereziak dituzten ikasleen taldean, Autismoaren Espektroaren Nahasmendua (AEN) dutenak sartzen dira, hori horrela, funtsezkoa da hezkuntza komunitateko kideek kolektibo horren berezitasunak ulertzea, esku-hartze egokiak eta eraginkorrak egite aldera (Gallego, 2019).

Ildo honetatik, LOMLOE legean oinarritutako 77/2023 dekretuak, maiatzaren 30ekoa, ikuspegi inklusiboa eta aukera berdintasuna ditu ardatz gisa hezkuntza eremuan: “Ikaskuntzarako diseinu unibertsala (DUA): ikasle guztiei hezkuntzarako sarbidean aukera-berdintasuna ematen dien curriculuma garatzeko printzipioen multzoa, inklusio eta parte-hartze eraginkorra lortzea helburu duena, ikaskuntzarako oztupoak minimizatuz eta ikasle guztien ikaskuntza-aukerak maximizatuz”<sup>3</sup> (5. or.).

---

<sup>3</sup> Euskarara itzulitako zita. Jatorrizko hizkuntzan: Diseño universal para el aprendizaje (DUA): conjunto de principios para desarrollar el currículo que proporcionan a todo el alumnado igualdad de oportunidades en el acceso a la educación cuyo objetivo es lograr una inclusión y participación efectivas, minimizando las barreras para el aprendizaje y maximizando las oportunidades de aprendizaje de todo el alumnado. (Decreto 77/2023, 5. or.)

### 2.3.1. Hezkuntza modalitateak eta neurriak

Estatuko boletín ofizialak bere legedi finkatuan ezartzen duenaren arabera (Ley 1/2022, de 10 de febrero, Maestra de Libertad de Elección Educativa de la Comunidad de Madrid), hiru hezkuntza modalitate daude premia bereziak dituzten ikasleen inklusioa sustatzeko. Lehenik eta behin, ahal den heinean, **ikastetxe arruntetan** eskolatzeko aukera planteatzen da, zentro horietako batzuk lehentasunezko arretarako ikastetxe arrunt gisa izendatuz.

Horrez gain, **hezkuntza bereziko ikastetxeetan edo ikastetxe arruntetan dauden gela egonkorretan** eskolatzeko aukera ere kontuan hartzen da. Alde batetik, gela egonkorren irekitzea ikastetxe arruntak ikasleen beharrei erantzun ezin dienean onesten da, eskolatzeko inklusioa bultzatzeko eredurik egokiena dela babestuz. Bestetik, ikastetxe arruntek laguntza espezifikoak eta baliabideak erraztu ezin dituztenean, premia bereziak dituzten ikasleak hezkuntza bereziko ikastetxe batean eskolatu ahal izango dira.

Halaber, **eskolatzeko konbinatuaren** modalitatea aipatzen da, hain zuzen ere, ikasle bat ikastetxe arrunt zein hezkuntza bereziko ikastetxe batean matrikulatu ahal izateko. Kasu honetan, ikaslearen gaitasunak aintzat hartu eta eskola arruntetan bere parte-hartzea sustatuko litzateke inklusioa lortze aldera.

Azkenik, legeak hezkuntza erantzuna egokia izan dadin, bi neurri mota proposatzen ditu: neurri arruntak eta berariazko neurriak. **Neurri arruntetan** artean, programazio didaktikoen egokitzapena, metodologia inklusiboen sustapena, errefortzu-programak eta ebaluazioen egokitzapena sartuko lirateke. Aldiz, **berariazko neurrietan**, egokitzapen curricularrak eta funtsezko aldaketak nagusituko lirateke, azkenengo neurri hauek eraginkorrak ez izanez gero, eskolatzeko modalitatea aldatzea proposatuz.

#### 2.3.1.1. Gela egonkorra

Sainzek (1998) aurreko atalean aipaturiko gela egonkorrek honela definitzen ditu: “bidezko egokitzapenak egin ondoren ere curriculum arrunta jarraitu ezin duten edo neurri txiki batean bakarrik jarrai dezaketen larriki afektaturiko ikasleei arreta emateko sortzen diren gelak dira” (10. or).

Definizioa zehazteaz gain, gela egonkorraren ezaugarriak zehazten ditu autore berberak. Profesionalei dagokienez, ikasgela egonkorrek Pedagogia Terapeutikoan espezializatutako irakasle bat eta laguntzaile bat du, ikasleei laguntza pertsonalizatua emateko funtsezko zeregina betetzen dutena.

Ikasleek behar duten arreta indibidualizatua dela eta, ratioa gelako 4-5 ikaslera mugatzen da. Era berean, ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako Curriculum behar da hezkuntza prozesua ziurtatzeko eta, horrek, ikasgelak material eta ekipamendu espezifikoak izatea eskatzen du.

Bestalde, ikastetxe arruntan integratuta dagoenez, gela egonkorrek hezkuntza eskakizunei erantzuna ematea ahalbidetzen du; are gehiago, ikastetxe arruntarekiko interkonexioa du, beraz, espazio komunak, ordutegiak, eskola jardueraren banaketa eta egutegia partekatu eta koordinatu egiten dira.

Aldiz, Aparicio eta Porxasek (2019) gela egonkorrek hezkuntza inklusiboa izateko eskubidea arriskuan jartzen duten eta segregazioa iraunarazten eta justifikatzen duten segregazio ereduak direla defendatzen dute. Ez hori bakarrik, eredu horiek alternatiba inklusibo gisa definitzen direla azpimarratzen dute, banantzearen aldeko lehentasun horrek, hezkuntza inklusiborako eskubidea sustatu beharrean, hezkuntza segregatzaile baterantz aurrera egiteko erresistentzia erakusten dutela adieraziz.

Ondorioz, desafiatazalea da gela egonkorrek benetan inklusiboak direla pentsatzea. Eredu segregatzaileak ikastetxe arruntetan txertatzeak ikasle guztiek hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa izateko duten eskubidea kaltetu egiten du, hezkuntzako aukera berdintasunaren funtsezko printzipioaren aurka doan bereizketa justifikatuz.

Beraz, garrantzitsua da erronka horri heltzea eta hezkuntza ekimen guztiek ikasle guztiek hezkuntza inklusibo eta ekitatiboa izateko duten eskubidea sustatuko dutela bermatzea.

## 2.3.2. Esku-hartze metodoak

### 2.3.2.1. TEACCH metodoa

Hezkuntza Bereziaren testuinguruan, autismoaren espektro nahasmendua (AEN) duten ikasleentzako 1970eko hamarkadan sortu zen TEACCH (Treatment and Education of Autistic and related Communication-handicapped Children) metodoa nabarmentzen da (UNIR, 2020).

TEACCH metodologiak ikasleen sozializazio gaitasunak hobetzea eta autonomia pertsonala eta psikomotrizitatearen garapena sustatzea du helburu. Helburu horiek guztiak lortzeko, hurrengo alderdiak kontuan hartzen dituen irakaskuntza egituratu batean oinarritzen da (UNIR, 2020) :

- **Denboraren kudeaketa:** planifikatutako jarduerak iraupen egokia izan behar dute, denbora luzeko ariketak saihestuz.
- **Espazioaren antolamendua:** ikasgelako espazioak ondo antolatuak egon behar dira, modu honetan, lan egiteko espazioa bestelako espazioetatik bereiziz.
- **Lan sistema:** materialen aukeraketa modu autonomo batean jardun ahal izateko aurreikusi behar da eta lanak sekuentzia argi bat jarraitu behar du; hau da, ikasleak zer egin behar duen, zenbat denbora daukan eta hurrengo zeregina zein den jakin behar du lan egiten hasi aurretik.
- **Informazio bisuala:** piktogramen edo ikusizko hitzen erabilera egiten da zereginen sekuentzia eta jarraibideak modu argi batean islatzeko.
- **Agendaren erabilera:** errutinak ezartzeko eta programatutako jardueren buruzko informazioa emateko erabiltzen da, horrela, aldaketa uneetan antsietatea murrizten lagunduz.

Machicadoren (2022) esanetan, autismoa duten pertsonen denbora kudeatzeko dituzten zailtasunak kontuan izanda, TEACCH metodologiak zereginen hasiera eta amaiera puntuak ondo definitzea ahalbidetzen du. Horrez gain, TEACCH metodo malgu, antolatua eta sinplea izanda, autonomiaren garapenari laguntzea lortzen du. Modu honetan, ikaskuntza autismoa duten ikasleen beharretara egokitzen da.

### **2.3.2.2. ABA programa (Applied Behavior Analysis)**

Portaeraren Analisi Aplikatuaren programak, jokabide desiragarriak sustatzeko errefortzuen erabilera defendatzen du. Ikasleen jarreraren bat sustatu nahi izanez gero, errefortzu positibo bat ematea proposatzen du ABA programak, hain zuzen ere, errefortzu positibo neutrala definitzen du ikasleak eguneroko zereginak pixkanaka egiten irakasteko baliabide eraginkor gisa (Vázquez et al., 2020).

Bestalde, Castillo eta Jiménezek (2023) trebetasunak irakasteko ez ezik, ABak jokabide desegokiak murrizteko ere balio duela defendatzen dute. Alde batetik, errefortzu positiboaren artean, fitxen ekonomia (portaera bat indartu nahi den bakoitzean fitxa bat ematean datza, gero sari batekin trukatzeko), kateatzea (ikasleari trebetasun bat urrats txikietan erakustean datza) eta moldekatzea (nahi denaren antzeko portaera bat pixkanaka indartzen da, espero den helburua lotu arte) nabarmentzen dituzte.

Bestetik, jokabide desegokiak murrizteko bi proposamen aurkezten dituzte Castillo eta Jiménezek (2023). Lehenengo proposamena arazoaren jatorria ezagutzean oinarritzen da eta bigarrena, aldiz, jarrera desegokiaren aurrean ez ikusiarena egitea planteatzen du, arazoa berez desagertu dadin.

Aurrekoaren haritik, ikaslearen erritmoak errespetatzeaz gain, sistema honek haurraren trebetasunak eta erronkak ebaluatzeko aukera ematen du. Epe laburrerako, luzerako eta lehenetsun orokorren arabera, helburu batzuk zehaztu behar direla aipatzen du; helburu horiek betetzeko errefortzuak berehalakoak izatea, desberdinak izatea eta errepikatzea berebiziko garrantzia duela azpimarratuz (Vázquez et al., 2020).

## **2.4. Zubiak eraikitzen: enplegua eta autismoa**

Espektriko Autistako Nahasmendua (AEN) duten pertsonen hezkuntza etapa amaitzean aurkitzen dituzten oztopoak direla eta, enplegua lortzeko zailtasunak izan ohi dituzte. Egungo hezkuntza sistema ez dago prest autismoa duten ikasleen beharrak asetzeko eta laguntza espezializaturik ez izatearen ondorioz, eskola porrotaren eta abandonuaren tasa altuarekin batera, haien jazarpenarekiko esposizioa areagotu egiten da (Vidriales et al., 2018).

Laneratzeari dagokionez, kolektibo honek enplegua lortzeko aukera gutxi izateaz gain, orientazio eskasa jasotzen du. Hori gutxi balitz, AEN duten pertsonen, zailtasunak dituzte euren interesak identifikatzeko eta helduarorako trantsizioan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, hasierako hezkuntza etapetan izan duten inplikazio eta laguntza desagerraraziz doa (Vidriales et al., 2018).

Hala ere, Ocasio (2023) kolektibo honen laneratzearen hamaika onura aipatzen ditu. Hasteko, enpleguak Autismoaren Espektroko Nahasmendua duten gazte helduen independentzia sustatu eta onura terapeutikoak eskaintzen ditu, euren portaera sozialak hobetzen baititu. Gainera, bideo-modelajea (ekintza espezifikoak irakasteko bideoak) duten programak, gizarte eta bokazio trebetasunak hobetzeko balio dutela defendatzen du autoreak, enplegua lortzea errazten dutela azpimarratuz.

Era berean, familiaren, gazte helduaren, eskolaren eta komunitatearen arteko lankidetzaren funtsezkoa da trantsizio arrakastatsua lortzeko. Hori horrela, inklusioa sustatzeaz gain, autismoa duten pertsonen elkarrekintza sozialean dituzten mugen autokontzientziarekin lotutako antsietatea murrizten ere lagun dezake lan egiteak. Laburbilduz, esku-hartze goiztiarra eta laguntza integrala funtsezkoak dira AEN duten gazte helduengan gizarte trebetasunak arrakastaz garatzeko eta euren bokazioaz jabetzen laguntzeko (Ocasio, 2023).

## **2.5. Ikasleei ematen zaien trataera**

Sainzek (2000) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) gela egonkorreko garapen funtzionalean oinarritutako curriculum ikuspegia hartzea iradokitzen du. Curriculum mota honek ikasleak hainbat testuingurutan modu autonomoan eta eraginkorrean moldatzeko gaitzen dituzten trebetasun praktikoak eta estrategiak eskuratzea lehenesten du; hala nola, eskolan, familian, gizartean, aisialdian eta lanean. Hona hemen garatu beharrezko hamar trebetasunak:

1. Komunikazioa
2. Norberaren zaintza
3. Etxeko bizitza

4. Gizarte-trebetasunak
5. Komunitatearen erabilera
6. Autoerregulazioa
7. Osasuna eta segurtasuna
8. Aisia eta denbora libre
9. Lana
10. Trebetasun akademiko funtzionalak

Oro har, garrantzitsua da kontuan izatea premia bereziak dituzten ikasleei zuzendutako curriculumek eskakizun maila txikiagoko zereginak izaten dituztela, eta ondorioz, litekeena dela ikasleek bizimodu independentea lortzeko beharrezkoak diren gaitasunak ez izatea. Askotan, ikasle horiek hezkuntza ez duina jasotzen dute, jasotakoak ez baititu aintzat hartzen ikaskuntzan egindako aurrerapenak edo atzerapenak, hezkuntza programen bidez emandako arreta gabezia agerian utziz (Rivera et al., 2023).

Hori dela eta, esan liteke garapen integralean oinarritutako curriculumak askotan mundu errearen eskaerak asetzeko eta erronkei behar bezala aurre egiteko nahikoak ez diren jarduerak aurkezten dituela, modu honetan, ikasleei bizimodu independenterako prestakuntza eskasa eskainiz.

Beraz, hezkuntza ikuspegiak berrikusteko eta erreformatzeko premia larria duen egoera baten aurrean egonda, arrakala horri heldu eta autismoa daukaten DBHko gela egonkorreko ikasleentzako hezkuntza alternatiba eraginkorragoak proposatu nahi ditut I+Z metodologian oinarritutako GRadu Amaierako Lan honetan.

### **3. GRALaren helburuak**

Hezkuntza inklusiboak hamaika erronka ditu premia bereziak dituzten ikasleen arretari dagokionez. Erabiltzen den curriculumak mundu errearen beharrei erantzutetik urrun geratzen da maiz; hori dela eta, hezkuntza alternatiba eraginkorragoa proposatzeko asmoz, TEACCH metodologia (Treatment and Education of Autistic and related Communication-handicapped Children) erabiltzen duten autismoa duten bost ikasleko gela egonkor batean garatuko da lan hau. Hona hemen Gradu Amaierako Lan honek izango dituen helburuak:



## **1. helburu orokorra**

- Lankidetza iraunkorreko sare bat ezartzea, gela egonkor eta ingurunearen arteko harreman sendoagoa sortzeko, tokiko denden eta ikasgelaren parte-hartze aktiboaren bidez.

### **Helburu espezifikoak**

- Tokiko saltokiekin hasierako harremana sortzea lankidetza proiektua aurkeztuz.
- Denden beharrak eta interesguneak identifikatzea, ikasgelako hezkuntza helburuekin lerrokatzeko.
- Ekintza plan zehaztua garatzea non lankidetzaren maiztasuna, materialak eta interesatuen erantzukizunak identifikatuko diren.

## **2. helburu orokorra**

Curriculumeko edukiak ikaskuntza praktikoko esperientzietan modu esanguratsuan txertatzea, ikasleen ikaskuntza helburuak lortzeko eta haien garapen integrala sustatzeko, tokiko saltokien zein ikasgelaren parte-hartze aktiboaren bidez.

### **Helburu espezifikoak**

- Gela egonkorreko tutoreari lankidetza proiektua aurkeztea, ikasgelako beharrak zeintzuk diren jakiteko.
- Curriculumaren ikaskuntza helburuak identifikatzea, tokiko saltokiekin lankidetza egite aldera.
- Ikaskuntza jarduera praktikoak diseinatzea eta garatzea, ikasleei ezagutzak testuinguru errealean aplikatzeko aukera emateko.

## **3. helburu orokorra**

- Ikaskuntza-Zerbitzua metodologiaren eraginkortasuna baloratzea eta parte-hartzaileen feedbacka biltzea; hau da, nirea, gelako profesionalena,

ikasleena eta jostailu dendako saltzaileena.

## **Helburu espezifikoak**

- Esku-hartzearen implementazioari eta azkenengo produktuari buruz ikasgelako profesionalek duten feedbacka biltzea eta aztertzea.
- Esku-hartze prozesua eta ikasleek jarduerak nola gauzatu dituzten behatzea.
- Jostailu dendako saltzaileek izan duten esperientzia eta lankidetzari ematen dioten garrantzia jasotzea.
- Nire ikaskuntza prozesua baloratzea eta honi buruz hausnartzea.
- Hezkuntza hobekuntzak proposatzea, etorkizunean autismoa duten ikasleekin egingo diren esku-hartzeak eraginkorragoak izate aldera.

## **4. Metodoa**

Itunpeko ikastetxe bateko gela egonkorrean praktikak egiten ari nintzela, gela egonkorretako ikasleek egin ohi dituzten jarduerak errealitatetik urrun zeudela komentatu genuen tutorea eta biok. Adibidez, ikasle batek jostailuzko autoak sartu behar zituen paperezko erroilu batean psikomotrizitate fina lantzeko, eta beste batek arrainen marrazkiak ordenatzen zituen koloreen arabera. Material errealagoekin landu zitezkeen jarduerak zirela ondorioztatu genuen; horregatik, curriculum helburuak lantzen zituzten bitartean, auzoko denda baterako bisita-txartelak egin zitzaizkela bururatu zitzaidan eta horixe da hain zuzen ere, GRALean zehar garatuko dudana.

### **4.1. Eszenatokiaren deskribapena**

Esku-hartzea Donostian kokatzen den Kristau Eskolako itunpeko ikastetxe batean eramango da aurrera. Ikastetxe handia da, izan ere, 1.600 ikasle eta 110 irakasle inguru ditu. Horrez gain, 2 urtetik 18 urtera bitarteko hezkuntza eskaintzen du; hau da, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoa ematen dira bertan. Hizkuntza ereduari dagokionez, B eta D ereduak nabarmentzen dira, eta zerbitzuei erreparatuz gero, ikasleen eskola-bizitza errazteko, autobusa, jantokia, eskolaz kanpoko jarduerak eta goizeko gela daude (Kristau Eskola, d. g.).

Bertan autismoa duten pertsonen senideen elkarteak kudeatutako gela egonkorra aurkitzen da, non hiru eta sei ikasle (20 urte artekoak izan daitezke) artean egon daitezkeen gehienez. Profesionalen artean, irakasle bat, hezitzaile bat eta bi zaintzaile daude, eguneko une jakin batzuetan laguntza ematen dutenak (Gautena, d. g.).

Ildo beretik, gela egonkorreko ikasle bakoitzak alderdi akademikoak eta garapen pertsonalerako funtsezkoak diren arloak biltzen dituen programa indibidualizatu bat du, parte hartzen duten profesionalek eta familiak urtero egina. Horrela, ikasleen adina kontuan hartzen da, eta haien bizitza etapari dagozkion edukiak jorratzen dira; adibidez, gazteengan helduaroarekin lotutako alderdiak lantzen dira, hala nola, autonomia, lanean hastea, harreman afektibo-sexualak eta etxeko lanak (Gautena, d. g.).

#### **4.2. Parte-hartzaileak**

Proiektuko parte-hartzaileen artean, 3.mailako AEN duten 13 eta 20 urte bitarteko bost ikasle dira protagonistak. Ikasle guztiek dependentzia maila handia aurkezten dute, eta horietako batek Down sindromearen diagnostikoa ere badu.

Gizarte trebetasunei dagokienez, ez dute elkarrizketarik jarraitzen, eta guztiek ekolaliarako joera erakusten dute (hitzak edo esaldiak nahi gabe errepikatzea). Gainera, oro har, zailtasunak izaten dituzte psikomotrizitate fina abian jartzea dakarten jarduerak egiterakoan eta horrez gain, bi ikaslek zailtasunak dituzte psikomotrizitate lodiarekin. Jarduera kognitiboei dagokienez, ez dute pentsamendu abstraktua eskatzen duen jarduerarik egiten, beraz, zereginak argiak eta zentzu bikoitzik gabeak izan behar dira.

Halaber, jarduera mekanikoak eta programatuak jarraitzeko trebetasun handia dute, hots, zeregin errepikakorrak zehaztasunez eta sendotasunez egiten dituzte. Era berean, lan ohitura onak dituzte eta jarduera berriak ikasteko jarrera harkor eta irekia erakusten dute, erronkei aurre egiteko eta trebetasun gehigarriak eskuratzeko benetako jarrera erakutsiz.

Bestalde, jostailu denda bateko bi saltzailek parte hartuko dute. Ikasleek sortutako produktuak euren beharrak hartuko ditu kontuan (bereziki psikomotrizitate finaren

lanketa modu mekaniko batean egitea) eta, bukatutakoan, haiei emango zaie, erosleei bana diezaieten.

Azkenik, nabarmentzekoa da hezitzailearen eta gelako tutorearen parte-hartzea, funtsezko zeregina izango dutenak txartelen azken diseinua aukeratzeko orduan. Gainera, nik proiektua abian jartzeko hasierako bultzada eman ondoren, haiek izango dira proiektuaren jarraipena ziurtatuko dutenak. Hau honela, parte-hartzaile guztien anonimotasuna bermatze eta nortasuna babeste aldera, irizpide etikoak kontuan hartu dira (ikus 1. eranskina).

### **4.3. Esku-hartzearen diseinua eta prozedura**

Atal honetan zerbitzuaren helburuak eta honek izan dituen urratsak deskribatuko dira Gómez-Chacón et al.-ek (2020) finkatutako I+Z-ko faseak kontuan izanik.

#### **Zerbitzuaren helburuak:**

- Ikasleen psikomotrizitate fina indartzea, txartelak sortuz, begia-esku koordinazioa eta zehaztasuna hobetuz.
- Txartelen banaketa aprobetxatzea elkartea ezagutarazteko eta autismoaren gaineko kontzientzia sortzeko.
- Ikasleen autoestimua eta autonomia areagotzea, beren lanak baloratuta eta erabilia ikusten dituztenean.

#### **1. urratsa: ideiaaren zirriborroa**

Proiektuaren bideragarritasuna ikusten lagundu zidan zerbitzuaren programazio-fitxa bete nuen, non ikasle bakoitzaren curriculum helburuetan (ikus 2. eranskina) eta kate produkzioan oinarritutako talde lana proposatzen nuen normalean bakarkako lana egiten zuten aldi horietan.

## **2. urratsa: harremanak ezartzea**

Auzoko hainbat denda bisitatu eta gero, jostailu dendako saltzaileekin sortu nuen kontaktua eta ikasleek egingo zituzten txarteltxoak erosleen artean banatzea proposatu nien. Praktikak egiten nengoenean, gelako tutoreari eta hezitzaileari ideia aurkeztu nien eta behin txarteltxoaren diseinua izanda, gelako profesionalei eta saltzaileei erakutsi nien.

## **3. urratsa: proiektuaren plangintza**

Ekintza bakoitzeko 10 minutuko iraupena zuen kronograma bat (ikus 3. eranskina) definitu nuen, ostiral arratsaldea libre utziz aurreikusitako zerbait faltaz gero, tarte horretan egiteko. Ikasleek astelehenero eramango zuten produktua dendara, fidelizazio-txartel batean zigilu bat lortzeko eta azkenean, diploma bat eskuratzeko.

## **4. urratsa: proiektua prestatu**

Materialen bilketa egin nuen eta ikasgelan laguntzaile gisa lan egiten nengoela, zereginak aurrera eramateko eta dena ondo antolatuta zegoela ziurtatzeko aprobetxatu nuen, jarduera eta diseinu batzuk benetako beharren arabera egokituz (ikus 4. eranskina).

## **5. urratsa: proiektua gauzatu**

Ikasleek ia 200 txartel egin zituzten astebeteetan. Esku-hartzea goizez egin zen, eta ikasleek modu autonomoan eta motibatuan jardun zuten, adibidez, ikasle batek bideotutorial baten erabileraz txarteltxoa osorik egiteko gai izan zen (ikus 5.eranskina).

## **6. urratsa: proiektua ixteko prozesua**

Entrega egunean, dendariei egingo nien elkarrizketa prestatu, txarteltxoak berrikusitu eta bi ikasleekin eta tutorearekin hurbildu nintzen jolas dendara.

## 7. urratsa: ebaluatu

Ikasleak prozesuan zehar behatzeaz gain, amaierako produktua sortzea lortu zuten, beraz, azkenengo emaitza positiboa izan zen. Gainera, entrega egunean jolas dendako saltzaileen esperientzia elkarrizketa baten bidez baloratu nuen, nire esperientzia egunerokoan egindako hausnarketa baten bidez eta gelako profesionalena, aldiz, galdetegi baten bitartez.

Hona hemen zerbitzuaren kronograma:

### 3.taula

Zerbitzuaren kronograma.

Data / Denbora-tartea	Ekintza
2023-10-10	GrALeko tutorearekin bilera
2023-11-29	1. formakuntza: Zer da APS, marko teorikoa, genero perspektiba eta helburuak
2023-11-29tik 2024-01-20ra	Helburuak zehaztu eta marko teorikoaren hezurdura
2024-02-15	Jolas dendari lankidetzaren proiektua aurkeztu
2024-02-20	2.formakuntza: zerbitzuaren diseinua, egunerokoa eta metodoa
2024-02-26	Diseinuaren fitxa egin
2024-02-27	Gela egonkorreko tutoreari lankidetzaren proiektua aurkeztu eta ikaslearen beharrak identifikatu
2024-02-29	Jolas dendari diseinuaren proposamenak eskaini
2024-03-18	Materialen bilketa
2024-04-16tik 2024-05-06ra	Esku-hartzea martxan
2024-04-22	3.formakuntza: analisia, emaitzak eta ondorioak

2024-04-22tik 2024-05-17ra	Analisia eta emaitzak egin
2024-05-7	Entrega eguna
2024-05-7	Balorazio galdetegia entregatu ikasgelako profesionalei, autoebaluazioa egin eta elkarrizketa pasa dendariei

**Iturria:** norberak egina

#### 4.4. Informazioa jasotzeko tresna

Landa lana egiteko erabili ditudan tresnak galdetegiak, elkarrizketak, behaketak eta egunerokoa izan dira. Azkenengoaren bidez, narrazio etnografiko bat egiteko aukera izan dut; hau da, zerbitzua hasi aurretik, martxan jartzean eta amaitu eta geroko bizipenak eta behaketak erregistratu ditut bertan. Azpimarratu beharra dago ez dela hitzen bidezko kontaketa soila, audioak, bideoak edota argazkiak txertatu baititut kontakizuna ahalik eta esanguratsuen izateko.

Aipatutakoez gain, planifikazioaren aspektu metodologikoei buruz idatzi dut, zehazki, diseinu, materiala, denboralizazio eta antolaketari buruz. Bestalde, planifikazioa egiten ari nintzen bitartean proposamen didaktikoan egindako moldaketak ere biltzen ditu egunerokoak.

Modu berean, prozesu guztian zehar izandako harremanak uztartu egiten dira bertan, esku-hartzea martxan, esperientziak, gertaera kritikoak eta ebaluazioak aztertzen dituen bezalaxe.

#### 4.5. Informazioaren analisia

Emaitzak idatzi ahal izateko eta Ikaskuntza-Zerbitzua metodologiak eman duena jasotzeko, informazioa aztertu behar nuen, beraz, lehenik eta behin, paragrafo bakoitzari kode bat jarri nion; ondoren, paragrafo bakoitza kategorizatu eta sistema kategoriala sortu nuen (dimentsioak, kategoriak eta azpikategoriak) eta azkenik, kategoria berdineko paragrafoak elkartu, interpretatu eta laburtu nituen.

#### 4.taula

Kodeen legenda

EG	→	Egunerokoa
e	→	Eguna
ELK	→	Elkarrizketa
EB	→	Ebaluazioa
LO	→	Landa-oharra

**Iturria:** norberak egina

#### 5. taula

Sistema kategoriala

<b>Dimentsioak</b>	<b>Kategoriak</b>	<b>Azpikategoriak</b>
Sentipenak	Kezkak eta zalantzak	
	Motibazioa	
	Desmotibazioa	
	Hausnarketa	
	Poza	
Planifikazioa	Aspektu metodologikoak	Diseinua
		Materiala
		Denboralizazioa
		Antolaketa
	Proposamen didaktikoa	Moldaketak
		Diseinua
	Faktore erraztatzaileak	
Harremanak	Ikasgelako profesionalak	
		Dendariak
Esku-hartzea martxan	Ikasleak jarduten	
	Faktore oztopatzaileak	



Talde lana		
Esperientziak eta anekdotak		
Gertaera kritikoa	Material falta	
Ebaluazioa	Dendariak	Elkarrizketa
Autoebaluazioa		

**Iturria:** norberak egina

Goiko taulan ikus daitezkeen bezala, 7 dimentsiotan banatu dut informazioa: sentipenak, planifikazioa, harremanak, esku-hartzea martxan, esperientziak eta anekdotak, gertaera kritikoa eta ebaluazioa. Aldi berean, dimentsio batzuen barruan kategoriatzuk bereizten dira eta gauza bera gertatzen da azkenengoenekin, non barruan azpikategoriak aurkitu daitezkeen.

## 5. Emaitzak

Jarraian, egunerokoaren analisiaren dimentsio ezberdinak aztertuko dira:

### 5.1. Planifikazioa

Proiektuaren plangintza eta diseinu fasean, funtsezkoa izan zen ikasgelako profesionalekin izan nuen elkarrekintza; izan ere, nire ikuspegia argitzen eta ikasle bakoitzak nola parte hartu ahal izango zuen hobeto ulertzen lagundu zidaten hainbat proposamen jaso nituen. Gainera, zerbitzua diseinatzen ari nintzela, nire ideiak paperean islatu eta proiektuaren bideragarritasuna argiago ikusi ahal izan nuen, zalantzarik gabe, asko lagundu ninduen.

*Proiektua aurkeztera eta ideiak proposatzera gerturatu naiz ikastetxera. Gelako tutorearekin eta hezitzailearekin bildu eta proposamen ezberdinak eman dizkidate. Ez nekien oso ondo ikasle bakoitzak zertan parte-hartu zezakeen eta egia esanda, haiek burua ordenatzen lagundu didate. (EG\_2e\_0227)*

Horrez gain, parte hartuko zuten ikasle bakoitzaren programazioaren helburuak berrikusi nituen. Horri esker, hobeto ulertu ahal izan nituen ikasle bakoitzaren premia indibidualak, eta, horrela, proiektuaren diseinua haren gaitasun eta hezkuntza xedeetara zehatzago egokitu ahal izan nuen.

Materialen planifikazioari dagokienez, proiekturako behar ziren material guztiak erosteaz arduratu nintzen, ikasturte amaierara arte iraungo zutela pentsatuz. Gainera, aukera berriak aztertu nituen, hala nola, material digitalaren (bideoa) sorkuntza, ikasle batek txartel bat modu erabat autonomoan osatzen lagunduko zuena.

*Arratsaldean, auzokideari laguntza eskatu diot, materiala prestatu eta bideoa grabatzeari ekin diogu. Lehenengo saiakera ondo atera da, ezin dut sinetsi! Gainera, marko teorikoan bideo modelajeari buruz hitz egiten nuela gogoratu dut. Agian hurrengo atalen bat egiteko baliagarria izango da! (EG\_10e\_0425)*

Bestalde, inolako antolamendurik gabeko jarduera txikiak egiten hasi ondoren, esku-hartzerako denboralizazio argia ezartzea erabaki nuen, oso lagungarria izan zena ikasleen eguneroko errutinan proiektua txertatzeko. Ikastetxeko tutorearekin hitz egin nuen xehetasunak zehazteko, eta maiatzaren 10a ezarri nuen esku-hartzea amaitzeko azken egun gisa. Hala ere, planean egokitzapenak egin ziren tutoreak txarteltxoak aurreikusi baino lehenago amaitu zirela jakinarazi zidanean. Harekin hitz egin ondoren, entrega aurreratzea erabaki genuen, malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna erakutsiz gure plangintzan.

Egia esan, praktikaldian gelako profesionalak (bideotutorialaren proposamena eman zidatenak) eta ikasleak alde zurretik ezagutzeak nire prozesua errazteaz gain, jolas dendako saltzaileak ere asko erraztu zuen proiektuaren bideragarritasuna lankidetzaren egiteko prest zegoela konfirmatu zidanean.

*Orokorrean bideotutoriala prestatu diodan ikaslearekin egon naiz. Oso ondo moldatu da bakarrik jarduten. Egia esanda, ikastetxeko profesionalen aldetik jasotako ideia oso aproposa ikusi dut eta asko poztu nau ikaslea modu autonomoan eta motibatuan jarduten ikusteak. (EG\_11e\_0426)*

Azkenik, bideragarritasuna eta denboralizazioa kontuan hartuta diseinuan egindako egokitzapenak aipatu behar dira. Hain zuzen ere, txartelean helbidea espero baino handiagoa jarriko zenez, marrazkiak ez egitea erabaki zen. Modu berean, zulo bat egiteko eta hari bat pasatzeko jarduera ez egitea erabaki zen, batek bakarrik egin zezakeelako eta horrek proiektuaren antolaketa eta denboralizazioa zailtzen zituelako.

Laburbilduz, plangintza fasea erabakigarria izan zen proiektuaren arrakastarako. Gelako profesionalekin izandako lankidetzari esker, proiektuaren diseinua ikasleen premia indibidualetara egokitu ahal izan zen, materialen erabilera optimizatuz eta bideotutoriala bezalako tresna berriak esploratuz. Oro har, jasotako iradokizunak ezartzeak nabarmen lagundu zuten proiektuaren bideragarritasunean eta eraginkortasunean.

## **5.2. Esku-hartzea martxan**

Martxan jarritako esku-hartzean, ikasleekin lan egiteko aukera izan dut hainbatetan. Dendaren helbidea egiteko, ordenagailuan idazten zuen ikasle batekin egon nintzen, letra larrietan, xeheetan, espazioetan eta kometan arreta jarritz. Gero, tutorearen iradokizunari jarraituz, idatzitakoan oinarrituz formatu erakargarria sortu genuen eta helbidea paper itsaskorrean inprimatu nuen. Gainera, beste batean, beste ikasle batekin aritu nintzen pegatina apaingarriak jartzen (ikus 6.eranskina) eta aurreko ikasleak bezala, autonomia eta motibazioa erakutsi zuen.

Hala ere, prozesuan zehar, oztopo batzuekin aurkitu izan naiz. Lehenik eta behin, ez nuen kontuan hartu ikasle batek modu autonomoan jarduteko, aurretiko ikaskuntza bat behar zuela, ondorioz, pentsatutakoa baino denbora gehiago eman behar izan nuen irakasten. Bigarrenik, esku-hartzea martxan jartzeko momentuan, txartelen diseinua gainbegiratu eta birformulatu egin behar izan nuen eta azkenik, hasiera batean arazo bat ez zela izango uste banuen ere, proiektuaren iraunkortasuna bermatzeko baliabide materialen kudeaketa eta finantziario falta azpimarratuko nituzke.

*Behin kronograma eginda, txarteltxoan diseinua gainbegiratu beharra dago. Nire ustez, planteatutakoa bat zetorren ikasleen beharrek baino gaurkoan errealitatearekin talka egin dut. Bakoitzak zer egin zezakeen eta noiz zehaztea eskatu didate. Hasieran ez diet oso ondo ulertu, haiei*

*emandako diseinuaren fitxan argi islatzen baitzen egin beharrekoa.  
(EG\_9e\_0424)*

Azken aurreko egunean, profesionalen eta ikasleen arteko koordinazio eta lankidetzaren eraginkorra ikusi ahal izan nuen, agerian uzten baitzuten banakako ekarpenek osotasun bat osatzeko bat balio zutela.

Funtsean, ikasleekin egindako esku-hartzeari esker, haien autonomia eta motibazioa sustatu zuten hainbat jardueratan egon ahal izan nintzen, hala nola, dendaren helbidearen sorkuntzan. Hala ere, oztopoei aurre egin behar izan nien, esate baterako, modu autonomoan egiteko alde aurretik irakasteko beharrari eta baliabide materialen kudeaketa eta finantzaketa faltari. Erronka horiek gorabehera, txartelen diseinua birformulatzea funtsezkoa izan zen ikasleen beharretara egokitzeko.

### **5.3. Harremanak**

Hasteko, gelako profesionalen eta nire arteko koordinazio eraginkorra ikusi nuen, baina haien artean urduritasuna eta zalantzak ere antzeman nituen, lanaren banaketari eta materialen erabilerari buruzko kezka adierazi baitzuten. Hala ere, geroago jakin nuen proiektuaren diseinuan egitura argia eta bateratua bilatzen zutela, txartelak egiteko aukera bakarra hobetsiz (ez nire diseinuaren fitxan agertzen den bezala).

*Urduritasuna eta zalantzak nabaritu ditut haiengan. “Eta zenbat txarteltxo egin beharko ditugu astero?” “Nik ez dut amaitu nahi haien lana egiten.” “Materialaz nor arduratuko da?” (EG\_LO\_2e\_0227)*

Bestalde, jostailu dendako saltzaileekin harremana ezarri nuen, eta maiz haiekin kontaktatzen nuen prozesua nola zihoan jakinarazteko. Gainera, txarteltxoak entregatu genituenean, egindako proiektua zabaltzeko nahi izan zuten Instagram bidez, eta nik, lan aukera berriak zabaltzeko itxaropenarekin, ekimena aprobetxatu nuen nire izena emanez.

*Amaitzeko, Instagrama eskatu digute proiektua zabaltzeko asmoz, eta elkartekoa emateaz gain, nirea ere emateko aprobetxatu dut. Nork daki, agian*

*lan eskaintzaren bat jasoko dut proiektu honengatik! Poz-pozik atera naiz dendatik, orain egindakoa idaztea bakarrik ez zait falta! (EG\_14e\_0507)*

Ondorio gisa, nahiz eta hasieran urduritasuna eta zalantzak egon ziren lanaren antolaketari eta materialen kudeaketari buruz, koordinazio eraginkorra egon da gelako profesionalen eta nire artean. Gainera, lankidetzaren "emankorra" ezarri nuen jostailu dendako saltzaileekin, haiek proiektua Instagramen zabaltzearen alde egin baitzuten, eta horrek, egindako lanaren ikusgarritasuna handitzeaz gain, lan aukerak ere zabaldu zituzkidan.

#### **5.4. Sentipenak**

Nire ideien bideragarritasunari buruzko ziurgabetasunak eta ideiak gauzatzeko denboraren kezka prozesuan zehar iraun dute. Besteak beste, proiektua diseinu gisa uzteko aukera planteatu nuen eta jarduera jakin batzuk egiteko beharko zen denboraz kezkatu nintzen, hala nola, bideotutorial bat sortzeko denboraz. Etsipenezko eta estresezko une horiek gorabehera, esperientzia positiboa izan dela esan dezaket. Halaber, gela egonkorreko ikasleek egindako praktika ulertzeko zailtasunak izan arren, poztu egin ninduen jarduerak gizartean eragin positiboa zuela jakiteak.

*Nire buruan dagoeneko baditut ideia ezberdinak, baina bideragarriak izango ote dira errealitatean? (EG\_2e\_0227)*

*Nahiko autonomoa den ikasle batentzat, txarteltxoak hasieratik nola egiten diren azaltzen duen bideo bat egitea proposatu didate. Asko estresatu naiz momentuan, datorren astean azterketetarako ikasi behar dut eta horrelako bideo bat egiteak denbora eskatuko didala pentsatu dut. Ez dakit editatzen, nire mobilak ez du kamera onik... Norbaiti laguntza eskatu beharko diot. (EG\_10e\_0425)*

Zalantzarik gabe, egun nekagarriena lankidetzaren egiteko saltokia bilatzen hasi nintzen eguna izan da. Hamaika ate itxita eta bakarra zabalik geratu zitzaizkidan, eskerrak jolas dandan argi izpia ikusteko gai izan nintzela.

*Praktiketarik irten eta saltokiak bisitatzen hasi naiz. “Kaixo, gauzatxo bat komentatzera nator. Ezagutzen al duzu X elkartea?” errepikatzeaz nazkatuta amaitu dut. (EG\_1e\_0215)*

Pasatzen zen egun bakoitzeko, hausnarketa txiki bat egiten nuen. Orokorrean jarrera lasaia izan dudala konturatu naiz, azken emaitzatik haratago banekielako ikaskuntza eskuratuko nuela. Era berean, ikasleek proiektua ulertu zezaten eta ikaskuntza esanguratsuagoa izan zedin, xedea modu sinplean azaltzen saiatu nintzen, baina egia esan, ez dakit zer puntutaraino izan zen eraginkorra. Bestalde, harritu egin ninduen ikasleen talde lanak hain denbora gutxian, eta, horren ondorioz, hausnartu nuen zer nolako potentziala zuten gizarteari eskaintzeko.

*Harrigarria iruditzen zait denbora hain laburrean ikasleek kooperazioan aurrera eraman ahal izan duten lana. Hau proiektu txikia da, baina gizarteari asko eskaintzeko dutela pentsatzen dut. Behar duten bakarra, norbaiten bultzada da. Zergatik ez dira halakoak gehiagotan egiten? (EG\_14e\_0507)*

Ikasgelara iritsi eta ikasleek egindako txartel guztiak ikusi nituenean, harritu egin ninduen hain denbora gutxian sortutako kopuruak, eta poz-pozik jarri nintzen. Ondoren, pasean jolas dendara hurbildu ginenean, produktuak bi ikaslerekin emateko aukera izan nuen eta modu berean, dendarien erreakzio positiboak eta ikasleek egindako lanarekiko zuten miresmenak pozez bete ninduten.

*Paseo momentuan gerturatu gara jolas dendara (ikaskideak ez dira inoiz batera ateratzen), beraz, soilik bi ikasleekin gerturatu ahal izan naiz. Egindakoen poltsa entregatu eta dendariak oso pozik ikusi ditut. Pozik haiek, pozik ni. Ikasleek egindako lana miresten zuten, ze ondo! (EG\_14e\_0507)*

Bada, prozesuan zehar zalantzak eta estresa izan arren, proiektuaren esperientzia positiboa eta aberasgarria izan dela esan dezaket, poza nabarmendu baita gainerako emozioen gainetik. Bideotutoriala sortzea eta salmenta puntuak bilatzea bezalako erronkak gainditzeak nire trebetasunak indartu zituen. Ez hori bakarrik, ikasleen lankidetzeta eta potentziala ikusteak, eta dendarien erreakzio positiboa jasotzeak, esku-hartzearen eragin positiboa berretsi zuen.

## 5.5. Esperientziak eta anekdotak

GRALeko bileran nengoela, ikastetxeko tutoreak txartelei buruz galdetu zidan, beraz, nik bileran hitz egindako bi aukerak aurkeztu nizkion. Argi adierazi nahi izan nion ez zegoela nahitaezko konpromisorik, eta elkarrekin azter genezakeela esku-hartzea gauzatzeko aukera, edo auzoko denda batekin lankidetzan aritzeko proposamen gisa geratu zitekeela.

*Proiektua aurrera eramateko ikasgelako profesionalek izango duten prestutasuna zalantzan jartzen dudanez, momentua ikusi dut bi aukera posibleak helarazteko. Hona hemen nire mezuaren zati bat: “Nire ustez, politena esku-hartzea martxan jartzea izango litzateke. Ni egun batzuetan gerturatu ahal izango nintzen baina ideia zuek ere honetan parte hartzea izango litzateke. Ez zaudete ezertara behartuta, bideragarria eta interesgarria ikusten baduzue, finkatuko dugu plangintza eta hitz egingo dugu. Bestela, proposamen gisa geratuko litzateke eta hortxe izango zenukete zuekin elkarlana egiteko prest dagoen auzoko dendatxo bat!” (EG\_LO\_8e\_0422)*

Horrela, ikasgelako profesionalen interesen arabera, Gradu Amaierako Lanak norabide bat edo bestea hartuko zuen. Azkenean, konpromisoa hartu eta proiektua aurrera eramatea erabaki zuten.

## 5.6. Gertaera kritikoa

Irakasleak material ezaren berri eman zidan, eta horrek kezka eta urduritasuna sortu zidan. Ikasleek astean 8-10 txartel egingo zituztela pentsatu arren, errealitateak nire aurreikuspenak gainditu zituen, ia 200 egin baitzituzten aste bakarrean. Egoera horren aurrean, eta material gehiago lortzeko denbora gutxirekin, irakasleari eskura zegoenarekin jarraitzeko jakinaraztea erabaki nuen.

## 5.7. Ebaluazioa

Dendariarekin egindako azkenengo elkarrizketan, proiektuari buruzko hiru galdera egin nizkien. Bere erantzunen arabera, ikasleak gizartean integratzeaz gain, proiektuak sentsibilizatze eta komunitateko lana erakusteko balio zuen. Proiektuaren ideia

gustatu zitzaien, eta termino komertzialetan pentsatzeko joerari buruz hausnartu zuten, ez dela beti diru irabazirik egon behar nabarmenduz. Modu berean, proiektuak ikasleei gizartearen parte sentitzeko aukera eskaintzen diela uste dute, ekintza erabilgarriak egiten baitituzte honen bidez.

- Ni: *¿Qué impacto creéis que ha tenido o va a tener este proyecto? ¿Creéis que sirve para sensibilizar?*
- Jolas dendako saltzaileak: *Sirve para vuestra visibilización, haceis un trabajo importante y eso está muy bien. También sirve para hacer trabajo en comunidad, integrarlos y hacerlos parte de esto.*
- Ni: *¿Qué os ha parecido la experiencia?*
- Jolas dendako saltzaileak: *Me gusta porque a veces estamos a la defensiva pensando que todo el que va a entrar será por algo comercial. A veces está bien relajarse y darse cuenta de que no todo es comercial, hay cosas sociales interesantes, no tiene porque haber una ganancia económica, la ganancia puede ser otra.*
- *¿Qué creéis que les ha podido aportar a los alumnos?*
- Jolas dendako saltzaileak: *sentirse parte de la sociedad, sentir que pueden hacer cosas y participar como cualquiera. Sirve para que se sientan útiles, algo fundamental; es algo que se va a usar, que va a gustar y que va a ser interesante. (ELK\_EB\_14e\_0507)*

Nire autoebaluazioari erreparatuz gero, ezagutza akademikotik haratago doazen gaitasun baliotsuak eskuratu ditudala uste dut. Aldaketei modu eraginkorrean aurre egiten ikasi dut, komunitatearen hainbat egoera eta beharretara egokituz, hala nola, proiektua bideragarria izateko txartelen diseinua egokitu behar izan nuenean. Gainera, erantzukizunak hartzean eta erabakiak hartzean autonomia irabazi dut, proiektuaren arduradun nagusia izanik eta akatsetatik ikasiz. Halaber, talde lanean, komunikazioan eta enpatian ditudan trebetasunak indartu ditut, ikasgelako profesionalekin eta dendako saltzaileekin lankidetzan aritu naizelako konponbideak aurkitzeko.

*Gainera, autonomia handiagoa eskuratu dut gizartean benetako eragina duen proiektuan erantzukizunak hartzean eta erabakiak hartzean. Proiektuaren arduradun nagusia ni neu nintzen, nik erabakitzen nuen zer, nola eta noiz egin;*



*beraz, zerbait txarto ateraz gero, nire “errua” izango zen, eta alderantziz.  
(EG\_15e\_0513)*

Azkenik, ikastetxeko profesionalei pasatutako galdetegian (ikus 7.eranskina), egindako praktikak teoria eta praktika hezkuntza errealitatearekin lotzen zirela uste zutela ikusi ahal izan dut. Gainera, ezagutza berria sortzen zela pentsatzen zuten, baina ez zeuden oso ados horrelako praktikek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan dauden zailtasunak konpontzen dituela defendatzen duen ideiarekin. Galdera honi emandako erantzunarekin geratzen naiz: “Amaitzeko, oro har, nola baloratuko zenuke esperientzia? Adjektibo gelditu bat eman.” “Aberasgarria, eraginkorra eta ikasleentzat motibagarria.”

Hitz gutxitan, proiektuak ikasleak gizartean integratzeaz gain, lan komunitarioari buruzko sentsibilizazioa ere sortu zuen, eta erakutsi zuen guztia ez dela merkataritza irabazietan oinarritzen. Dendariak ekintza erabilgarrien eta ikasleen parte-hartze sozialaren garrantzia azpimarratu zituen. Gainera, esperientzia honi esker, gaitasun baliotsuak eskuratu ahal izan ditut, besteak beste, aldaketetara egokitzea, erabaki autonomoak hartzea eta talde lana, komunitatean benetako eragina duten proiektuak kudeatzeko gaitasuna indartuz. Ikasgelako profesionalek esan bezala, praktika aberasgarria, eraginkorra eta ikasleentzat motibagarria izan da.

## **6. Ondorioak**

Informazioa bilatzera eta paperean islatzera mugatzen diren lanak egitera ohituta gaude, are gehiago, denborarekin ahazten diren lanak egiten adituak garela esango nuke. Hala ere, hori erabat aldatzen da ikaskuntza-zerbitzuaren metodologia ezartzen denean. Ikaskuntza akademikoa eta zerbitzu komunitarioa uztartzen duen metodologia inplementatzean, lan akademiko bat egiteaz gain, gizarteko behar erreal bati erantzuten zaio (Gamito, 2022); nire kasuan, gela egonkorreko ikasleak errealitateara hurbiltzea.

Ikaskuntza-zerbitzuak, Serranok eta Ochoak (2019) nabarmentzen duten bezala, bazterkeriaren barrerak haustea ahalbidetzen du, gizarte sareak indartuz eta elkarlana sustatuz. Beraz, aurrera eramandako esku-hartzean ikasleak auzoko denda batekin kontaktuan jartzean eta taldean lan egiteko erronka aurkeztean, barrera txiki bat desagerraraztea lortu dudala esango nuke.

Hala ere, badakit nire proiektuak inpaktu txikia izan duela gizartean; izan ere, inklusioa lortzeko, gutxi batzuen ekintza ez da nahikoa. Horretarako, I+Z metodologiarekin nahastu behar ez den boluntariora sustatu eta hezkuntza aldaketarako eragile gisa ulertu beharko zen (Red de Aprendizaje-servicio de las Universidades Catalanas, 2019). Oro har, I+Z hezkuntza-etapa guztietan ezartzea bideragarria da (Batlle, 2020) eta nire aburuz, inklusioa txikitatik sustatuko balitz, gizartean kontzientzia esanguratsuagoa eta iraunkorragoa sortuko litzateke.

Bestalde, gela egonkorreko ikasleek jarduera mekanikoetan trebetasunak erakusten zituztela eta gelan erabiltzen zuten TEACCH metodologia ikaskuntza antolatua zela ikusirik, txarteltxoan diseinua arrakastatsutzat joko nuke. Premia bereziak dituzten ikasleak askotan hezkuntza ez duina jasotzen badute ere (Rivera et al., 2023), benetako materiala eta errealitateari lotutako jarduerak erabiltzean ikaskuntza esanguratsuagoa bihurtzen dela ondorioztatzen dut; izan ere, ikaskuntza esperientzia horrek ikasleak motibatzen ditu, jardueren barneraketa prozesua sustatuz.

Machicadoren (2022) esanetan, aipaturiko metodologia hasiera eta amaiera puntuak finkatzeko baliagarria da eta esku-hartzea martxan jartzen nuen bitartean, behatu ahal izan nuen zerbait izan zen; adibidez, ikasle batek bost txartel egin behar zituenean eta bat amaitu bezain laster, egintzat markatzen zuenean.

Modu berean, UNIRrek (2020) aipatzen duen bezala, ikasleek modu autonomo batean jardun dezaten materialen aukeraketa eta ekintzen prozesua oso ondo finkatuta egon behar da. Gainera, Machicadok (2022) TEACCH metodo antolatua dela aipatzeaz gain, malgua ere izan behar duela azpimarratzen du. Hori dela eta, “malgutasuna” errespetatzeko asmoz, hasierako diseinuan esku-hartzea aurrera eramateko hainbat proposamen bildu nituen, gelako profesionalek sekuentzia eta diseinu finko bat eskatu zidaten arte.

Hori horrela, Ocasiok (2023) autismoa duten pertsonen irakaskuntzarako bideo-modelajea metodo gisa aurkezten du, gizarte eta bokazio trebetasunak garatzeko baliagarriak direla defendatuz. Egileak esandakoa baieztatu ahal izan dut; izan ere, egindako bideotutorialaren bidez, ikasle bat gai izan zen txartelaren prozesu osoa modu

autonomoan egiten ikasteko, pentsatzera eraman nauena bideo-modelajea oso tresna baliagarria izan daitekeela autismoa duten pertsonen ikaskuntzarako eta laneratzeko.

GRALaren helburuei dagokienez, 3 helburu nagusi nituen. Lehenik eta behin, saltoki eta ikasgelaren artean lankidetzara iraukorreko sare bat sortzea; bigarrenik, ikasleen Curriculumeko helburuak ikaskuntza praktikoko batean txertatzea eta hirugarrenik, parte-hartzaile guztien ebaluazioa jasotzea.

Alde batetik, proiektua hasi zenetik amaitu zenera arte gela eta saltokiaren artean etengabeko informazio trukaketa egon da, ni bien arteko bitartekaria izanik. Entrega egunean elkar ezagutu ziren eta bi parteak proiektuari jarraipen bat emateko prest bazen ere, finantziario falta dela eta, ezin izango da iraukortasun bat bermatu. Nahiz eta lehenengo helburua bere osotasunean ez bete, bi aldeetako artean harreman bat ezartzea lortu dela azpimarratzekoa da, proiektuak etorkizunean lankidetzara posibleak egiteko ateak irekita utzi baititu.

Bestetik, ikasleen curriculum helburuak txarteltxoaren prozesuan txertatzea erronka handia izan da. Hasiera batean diseinua planteatuta zegoen moduan, bideragarria zen trebetasun ezberdinen garapena sustatzea baina diseinu finko bat planteatzerakoan jorrotutakoak psikomotrizitate finaren garapenera mugatu dira batez ere. Nolanahi ere, ekintza berri batean jardutea gaitasun pertsonalak eskuratzeko baliagarria izan dela deritzot; izan ere, ikasleek modu autonomo batean lan egin dute eta zerbait gaizki ateraz gero, frustrazioarekiko tolerantzia erakutsi dute.

Horrez gain, parte-hartzaile guztien ebaluazioa jasotzea lortu dut; hain zuzen ere, gelako profesionalena galdetegi baten bidez, saltzaileena elkarrizketa baten bidez, ikasleena behaketaren bitartez eta nirea egunerokoan egindako hausnarketaren bidez.

Oro har, parte-hartzaile guztien esperientzia oso aberasgarria izan da. Galdetegia gelako profesionaleri pasatu ondoren, datorren urtean esperientzia errepikatzen prest egongo zirela adierazi zuten, haintzat bizipen baliotsua izan dela erakusten duena. Era berean, dendako saltzaileek etorkizuneko kolaborazioetarako prestasuna erakutsi zuten elkarrizketan eta ikasleek gogotsu jardun zuten prozesu osoan zehar.

Ondorioz, proiektu honi esker, ikasleek programaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren trebetasunak garatu ahal izateaz gain, tokiko denda batekin lankidetzan aritzean, lan eta merkataritza ingurunearen errealitatearekin kontaktua egiteko aukera izan dute.

Hau da, nolabait ikasle eta saltzaileen artean “lan-harreman” bat sortu zela esan daiteke, gelako jarduera soila izan arren, ikasleek enpresaren beharrari erantzun eta azkenengo produktu bat sortu zutelako, Ocasio (2023) aipatzen duen bezala, zeharkako modu batean euren independentzia sustatuz eta portaera soziala hobetuz.

### **6.1. Balorazioa**

Emaitzen atalean aipatzen dudan bezala, gela egonkorreko ikasleek diseinu finkoa behar zutela konturatu izanak inflexio-puntu bat suposatu zuen nire prozesuan, eta horrek plangintza birplanteatzera eraman ninduen, mota honetako ekintzek sekuentzia antolatua eskatzen dutela ikasiz. Halaber, asko harritu nau bideo-modelajearen eraginkortasunak irakaskuntza metodo gisa. Gelako profesionalek iradoki zidaten eta marko teorikoan islatuta nuen arren, ez nuen uste hain ondo funtzionatuko zuenik, ikasleak modu autonomoan eta motibatuan jardun baitzuen une oro.

Prozesuan zehar sentimenduak oso aldakorrak izan badira ere, lan guztia amaitu eta gero sentitzen dudan harrotasuna azpimarratuko nuke. Momentu batean proiektua diseinu gisa geratzeko zalantza izan nuen baina asko pozten nau esku-hartzea aurrera eraman izanak. Buruan nuen ideia bideragarria izateaz gain, baliagarria izan da ikasleentzat, eta horrek oso pozik sentiarazten nau, haiek baitira nire proiektuaren protagonista nagusienak. Gainera, nahiz eta nire helburuetako bi espero nuena baino neurri txikiagoan bete diren, ekarpen esanguratsuak egin ditudala eta oztopoei aurre egiterakoan (hala nola, material ezari edo txartelaren diseinua birplanteatzeari) are gehiago ikasteko aukera izan dudala uste dut.

Aurrekoarekin lotuta, irakasle ona izateko gakoa estrategia berriak probatzea eta ikasle taldearekin hobekien funtzionatzen duena aurkitzea dela uste dut (jakinda estrategia horrek ez duela betiko iraungo, eta behar berrietara egokitu beharko dela). Hori dela eta, horixe bera egin dut: ideia bat planteatu eta ikasle taldera egokitu arte birplanteatzen joan, pazientzia handiz eta arazoei ebazpena emanez.

Hobetzeko alderdi gisa, proiektua epe luzerako gauza bihur zedin finantzaketa izatea proposatuko nuke; izan ere, baliabide materialen faltagatik iraungitze data duen proiektua bihurtu da. Gainerakoan, I+Z metodologiak akademikotik haratagoko ikaskuntza eskaintzen duela deritzot; errealitatean oinarritutako esperientzia denez, emozioek parte hartzen dutelako, eta horrek, nire ustez, ikaskuntza esanguratsua izatea lortzen duelako.

Lan hau niretzat onuragarria izateaz gain, parte-hartzaile guztientzat ere mesedegarria izan da. Niri autismoa hobeto ezagutzeko eta esku-hartzea praktikan jartzeko balio izan dit; ikasleei curriculum helburuak lortzen lagundu die; gelako profesionalei ateak ireki dizkie auzoko denda batekin lankidetzan aritzeko; eta, azkenik, dendako saltzaileei marketin-estrategia bat gauzatzeko balio izan die, baita sentsibilizazioa lantzeko ere. Horrez gain, aipatzeakoa da gizarte-mailan izan duen inpaktua, saltzaileek txartetxoak erosleei banatzerakoan, elkarteari buruzko kontzientzia sortzea lortu baita.

Ondorioz, I+Z bidaia honetan, guztiok irabaztekoak izan ditugu eta dendako saltzaileak aipatzen zuen bezala, kasu honetan, ez da irabazi ekonomikorik egon, irabazia haratago joan baita, ikaskuntzaren eta lankidetzaren benetako balioari buruz hausnartzera gonbidatuz.

## BIBLIOGRAFIA

- Alcalá, G. C. eta Ochoa, M. G. (2022). Trastorno del espectro autista (TEA). *Revista de la Facultad de Medicina (México)*, 65(1), 7-20.  
<https://doi.org/10.22201/fm.24484865e.2022.65.1.02>
- Aparicio, M. eta Porxas, M. (2019). *Drets i discapacitat: la Convenció sobre els Drets de les Persones amb Discapacitat: de la teoria a la pràctica*. Universitat de Girona.  
<https://dugi-doc.udg.edu/bitstream/handle/10256/16429/DretDiscapacitat.pdf>
- Barthélémy, C., Fuentes, J., Howlin, P. eta van der Gaag, R. (2019). *Personas con trastorno del espectro del autismo. Identificación, comprensión, intervención*. Autismo-Europa.  
[https://www.autea.org/continguts/multimedia/arxiu/People-with-Autism-Spectrum-Disorder.-Identification-Understanding-Intervention\\_Spanish-version.pdf](https://www.autea.org/continguts/multimedia/arxiu/People-with-Autism-Spectrum-Disorder.-Identification-Understanding-Intervention_Spanish-version.pdf)
- Batlle, R. (2020). *Aprendizaje-servicio. Compromiso social en acción*. Santillana Activa. <http://wcespronew.s3.amazonaws.com/101189.pdf>
- Cañadas, L. (2021). Aprendizaje-Servicio universitario en contextos de actividad física, educación física y deporte: una revisión sistemática. *Educacão e pesquisa*, 47.  
<https://doi.org/10.1590/S1678-4634202147237446>
- Castillo, M. G. eta Jiménez, C. M. (2023). *El método ABA como estrategia para la corrección de las conductas disruptivas en un niño con Trastorno del Espectro Autista (TEA)* [Trabajo de Integración Curricular]. Universidad Nacional de Educación, Ecuador.  
[http://repositorio.unae.edu.ec/bitstream/56000/3039/1/Trabajo\\_de\\_integracio%c%81n\\_curricular\\_EE07.pdf](http://repositorio.unae.edu.ec/bitstream/56000/3039/1/Trabajo_de_integracio%c%81n_curricular_EE07.pdf)
- Decreto 77/2023, de 30 de mayo, de establecimiento del currículo de Educación Básica e implantación en la Comunidad Autónoma de Euskadi. (Boletín Oficial del País

Vasco, núm. 109, 09-06-2023).  
<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/06/2302729a.pdf>

Euskal Herriko Unibertsitatea. (d. g.). *Zer da Campus Bizia Lab?*.  
<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/campus-bizia-lab-zer-da>

Gallego, M. (2019). *Guía para la integración del alumnado con TEA en Educación Primaria*. EDITA.  
<https://dspace.itsjapon.edu.ec/jspui/bitstream/123456789/729/1/Guia-integracion-alumnado.pdf>

Gamito, R. (edit.) (2022). *Ikaskuntza-Zerbitzuan oinarritutako Gradu Amaierako Lanak garatzeko gida praktikoa*. Udako Euskal Unibertsitatea (UEU).

Gautena. (d. g.). *EDUCACIÓN*. <https://www.gautena.org/educacion/>

Gómez-Chacón, I. M., Ortuño, T. eta De la Fuente, A. (2020). Aprendizaje-Servicio en Matemáticas: Uso de Trayectorias de Aprendizaje en la formación universitaria. *REDU. Revista de Docencia Universitaria*, 18(1), 213-231.  
<https://doi.org/10.4995/redu.2020.12079>

Grosso, M. L. (2023). El autismo en las últimas ediciones de los manuales diagnósticos internacionales. *Revista Inclusiones*, 10, 52-62.  
<https://doi.org/10.58210/fpre3503>

Hervás, A. (2022). Género femenino y autismo: infra detección y mis diagnósticos. *Medicina (Buenos Aires)*, 82, 37-42.  
<http://www.scielo.org.ar/pdf/medba/v82s1/1669-9106-medba-82-s1-37.pdf>

Kristau Eskola. (d. g.). <https://www.kristaueskola.eus/>

Ley 1/2022, de 10 de febrero, Maestra de Libertad de Elección Educativa de la Comunidad de Madrid. (Boletín Oficial del Estado, núm. 100, 27-04-2022).  
<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-6768-consolidado.pdf>

Machicado, L. (2022). *El método Teacch para la adaptación escolar de niños y niñas con autismo* [Trabajo de Fin de Grado]. Universidad Mayor de San Andrés, Bolivia.

<https://repositorio.umsa.bo/bitstream/handle/123456789/31964/TN-1515.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Martín, X., Bär, B., Gijón, M., Puig, J. M. eta Rubio, L. (2021). El mapa de los valores del aprendizaje-servicio. *Alteridad. Revista de educación*, 16(1), 12-22.

<https://doi.org/10.17163/alt.v16n1.2021.01>

Martín, F., García, A. eta Losada, R. (2022). Trastornos del espectro del autismo. *Asociación Española de Pediatría*, 1, 75-83.

<https://www.aeped.es/sites/default/files/documentos/08.pdf>

Nazio Batuak. (2015). *Transforming our World: The 2030 Agenda for Sustainable Development*.

<https://sustainabledevelopment.un.org/post2015/transformingourworld/publication>

Ocasio, R. (2023). Los Beneficios de las Experiencias Laborales en Jóvenes Adultos/as con Autismo para su Inclusión Social: Revisión de Literatura Sistemática.

*Ciencias de la Conducta*, 38(1), 56-75.

<https://cienciasdeconducta.org/index.php/cdc/article/view/57>

Rivera, G., Lera, L., Poleo, A., Rivera, A. eta Federico, O. (2023). El liderazgo educativo en los programas de educación especial: Una revisión de la literatura.

*Anales de la Real Academia de Doctores*, 8(4), 785-801.

<https://www.rade.es/imageslib/PUBLICACIONES/ARTICULOS/V8N4%20-%2006%20-%20AO%20-%20RIVERA.pdf>

Red de Aprendizaje-servicio de las Universidades Catalanas. (2019). *Hacer aprendizaje-servicio en la universidad*. Nexe-minimilks.



[https://www.urv.cat/media/upload/arxiu/aprenentatge-servei/Docs%20APS/Guia%200\\_Xarxa%20ApS%20U%20CAT%20cast.pdf](https://www.urv.cat/media/upload/arxiu/aprenentatge-servei/Docs%20APS/Guia%200_Xarxa%20ApS%20U%20CAT%20cast.pdf)

Sainz, A. (1998). *Garapenaren nahaste orokortuak dituzten ikasleentzako gela egonkorren funtzionamendurako orientabideak*. Curriculuma Eratzeko eta Euskal Herriko Irakasleak Prestatzeko Institutua (CEI/IDC).  
[https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/119931/110019e\\_Doc\\_IDC\\_aulas\\_estables\\_e.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/119931/110019e_Doc_IDC_aulas_estables_e.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Sainz, A. (2000). *Las aulas estables para alumnado con necesidades de apoyos generalizados en centros de ESO: orientaciones para su funcionamiento*. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_esc\\_inclusiva/es\\_dof/adjuntos/especiales/110022c\\_Doc\\_EJ\\_aulas\\_estables\\_eso\\_c.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/es_dof/adjuntos/especiales/110022c_Doc_EJ_aulas_estables_eso_c.pdf)

Serrano, D. eta Ochoa, A. (2019). El aprendizaje-servicio como potenciador de la educación inclusiva en la educación primaria. *RIDAS. Revista Iberoamericana de Aprendizaje-Servicio*, (7), 37-54.  
<https://revistes.ub.edu/index.php/RIDAS/article/view/28817>

Tapia, M. N., Montes, R., Gimelli, A., Maidana M. P., Bridi, G., Scala, A., Tholke, C. eta Puglia, E. (2017). *Cómo desarrollar proyectos de aprendizaje y servicio solidario en la educación inicial y primaria*. CLAYSS.  
<https://oei.int/downloads/blobs/eyJfcmlFpbHMiOnsibWVzc2FnZSI6IkJBaHBBb3dxIiwZlXhwIjpudWxsLCJwdXIiOiJibG9iX2lkIn19--b2615c4ea82b3b2e12976c09c5de555976842fb2/1-inicial-primario-logos.pdf>

UNIR. (2020). *Método Teacch para el desarrollo del alumnado con TEA*.  
<https://www.unir.net/educacion/revista/metodo-teacch/>

Vazquez, T. C., García, D. G., Ochoa, S. C. eta Erazo, J. C. (2020). Estrategias didácticas para trabajar con niños con Trastorno del Espectro Autista (TEA). *Revista Arbitrada Interdisciplinaria KOINONIA*, 5(1), 589-612.  
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7610724>

Vidriales, R., Hernández, C. eta Plaza, M. (2018). *Empleo y Trastorno del Espectro del Autismo: “Un potencial por descubrir”*. Confederación Autismo España.  
[https://autismo.org.es/wp-content/uploads/2022/09/2018\\_EmpleoyTEA\\_Ejecutivo\\_AutismoEspana.pdf](https://autismo.org.es/wp-content/uploads/2022/09/2018_EmpleoyTEA_Ejecutivo_AutismoEspana.pdf)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA

# ERANSKINAK

## GRADU AMAIERAKO LANA

**EGILEA:** Eider Ochoa García-Abad

**ZUZENDARIA:** Maitane Basasoro Ziganda

**URTEA:** 2023-2024 ikasturtea

## 7. Eranskinak

### 1.eranskina: inplikazio etikoak aitortzeko adierazpena

#### GRAL ETA MAL-ek DAKARTZATEN INPLIKAZIO ETIKOAK AITORTZEKO ADIERAZPENA

Behean sinatzen dutenek (ikasleak eta tutoreak) adierazten dute honako alderdi hauek egiazkoak direla:

Ikaslearen izen abizenak	Eider Ochoa García-Abad
Ikaslearen posta elektronikoa	eiderochoa2000@gmail.com
Tutorearen izen-abizenak	Maitane Basasoro Ziganda
Tutorearen posta elektronikoa	maitane.basasoro@ehu.eus
Proiektuaren izenburua: <input checked="" type="checkbox"/> GRAL <input type="checkbox"/> MAL	Gela egonkorreko ikasleak errealitatera hurbiltzen
Proiektuaren laburpen laburra (gehienez 150 hitz)	Gela egonkorrak errealitatearekin lotzea erronka izaten jarraitzen du hezkuntza inklusiborako. Horregatik, Gradu Amaierako Lan honek autismoa duten Gaitenako gela egonkor baten bost ikasleren eta auzoko denda baten arteko lankidetzaz uztartzen du ikaskuntza-zerbitzu metodologia erabiliz. Autismoari, gela egonkorrei eta aplikatutako metodologiari buruzko azterketa teoriko baten ondoren, ikasleek tokiko dendarako bisita-txartelak diseinatu zituzten. Ondoren, eguneroko bat erabili zen proiektuaren emaitzarik esanguratsuenak jasotzeko, azkenik, agerian utziz ikaskuntza egoera errealekin konektatzeak ikasleengan eragin positiboa duela.

<b>Saila:</b>	Didaktika eta Eskola Antolakuntza
<b>Ikastetxea:</b>	Euskal Herriko Unibertsitatea (Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea)
<b>Graduaren edo masterraren izena</b>	Lehen Hezkuntza

**Planteatutako lanak barnebiltzen du (markatu dagokiona):**

- Gizakien behaketa
- Inkesta, elkarrizketa, eztabaida-talde eta abarren bidez datu pertsonalak lortzea.
- Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak
- Beste jarduerara mota batzuk pertsonekin edo kolektiboekin (zehaztu)
- 

- Aurreko ezer ez (zehaztu)
- 

**Adierazitako aukeretako bat edo batzuk badaude, behean sinatzen dutenek konpromiso hauek hartzen dituzte:**

Parte hartzen duten pertsona guztien baimen informatua jasotzea. Horretarako, honako betebeharrak hartzen ditugu gure gain: a) azterketaren izaerari eta horrek ekar ditzakeen onurei buruzko informazioa modu ulergarrian ematea; b) eskatutako parte-hartze mota eta emaitzei emango zaien erabilera akademikoa zehaztea; c) azterketak sor ditzakeen eragozpenak edo arriskuak zehaztea; d) azterlanean ez parte hartzeko edo haren baimena edozein unetan ezeztatzeko eskubidea dutela argi uztea, zenbait kalte edo diskriminaziorik eragin gabe; e) lortutako datuei eta horiek lortzeko moduari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dutela adieraztea, hala nahi izanez gero. f) Parte-hartzaileen anonimotasuna bermatzea, haien nortasuna babesteko eta jendaurrean agertzearen ondoriozko arriskurik ez izateko.

Datuen konfidentzialtasuna bermatzea. Horrek barne hartzen du egiletza ez

**2.eranskina:** *Ikasleen programaren helburuak*



<b>IKASLEAK</b>	<b>HELBURUAK</b>
A ikaslea	<ul style="list-style-type: none"><li>● Patroi bat jarraituz pegatinak itsastea.</li><li>● Brotxarekin margotzea.</li></ul>
B ikaslea	<ul style="list-style-type: none"><li>● Patroi bat jarraituz pegatinak itsastea.</li><li>● Objektuak sailkatzea forma eta tamainaren arabera.</li><li>● Tenperarekin margotzea.</li><li>● Artaziekin moztea.</li><li>● Itsastea.</li></ul>
C ikaslea	<ul style="list-style-type: none"><li>● Ordenagailuan idaztea.</li><li>● Objektuak sailkatzea forma eta</li></ul>








	tamainaren arabera.
D ikaslea	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Marra barrutik margotzea.</li> <li>● Artaziekin moztea.</li> <li>● Jarduera mekanikoak egitea.</li> <li>● Sozializazio trebetasunak garatzea.</li> <li>● Autoerregulazioa lantzea.</li> </ul>
E ikaslea	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Arazoak ebatzea.</li> <li>● Sozializazio trebetasunak garatzea.</li> <li>● Autoerregulazioa lantzea.</li> <li>● Frustrazioarekiko tolerantzia sustatzea.</li> <li>● Lokarriak lotzea.</li> </ul>

### 3. eranskina: *kronograma*

	Astlehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
<b>Goizean</b>	- Zuloak egitea - Ordenagailuan idaztea	TXANGO A	Pegatinak itsastea	- Soka lotzea (5 txartel)	- Gutunak elkarteko pegatinarekin ixtea
<b>Arratsaldean</b>	- Txartelak margotzea - Helbideak moztea		- Jolas dendako pegatina itsastea - Helbidea itsastea	- Soka lotzea (5 txartel) - Txartelak eta borragomak gutun azalean sartzea	“Ezuste koetarako denbora”

### 4. eranskina: *Materiala eta jardueren antolaketa (diseinu probisional)*


JARDUERA	MATERIALA	BOZETOA	IKASLEA
Txartelaren ezkerreko goiko aldean zulo bat egin	Zulo bateko zulagailua 		D ikaslea

<p>Txartela margoztea (aurretik eta atzetik)</p>	<p>Tenperak, errotulagailuak eta margoak</p> 		<p>A, B eta D ikasleak</p>
<p>Pegatinak itsastea (aurretik eta atzetik)</p>	<p>“Diamante” pegatinak eta umeentzako pegatinak</p> 		<p>A eta B ikasleak</p>
<p>Txartelaren aurreko aldearen erdialdean jolas dendaren logoa itsastea</p>	<p>Jolas dendako logoaren pegatinak</p>		<p>A eta B ikasleak</p>
<p>Dendaren helbidea eta telefonoa eta eskerrak emateko esaldiak idaztea, inprimatzea, moztea eta itsastea</p>	<p>Ordenagailua, inprimagailua eta zintazko pegamentua</p> 		<p>C ikaslea (idatzi), D ikaslea (moztu) eta B ikaslea (itsatsi)</p>



<p>Soka bat zulotik sartzea eta korapilo bat egitea</p>	<p>Soka</p> 		<p>E ikaslea</p>
<p>Txartela eta bi borragoma gutun-azal batean sartzea</p>	<p>Gutun azal gardenak eta borragoma txikiak</p> 		<p>B, C, D eta E ikasleak</p>
<p>Gutun azala elkarteko pegatina batekin ixtea</p>	<p>Elkarteko pegatinak</p>		<p>A eta B ikasleak</p>

**5.eranskina:** *ikaslea bideotutoriala ikusten*



**6.eranskina:** *ikaslea pegatina apaingarriak itsasten*



**7.eranskina:** *gelako profesionaleri pasatutako galdetegia*

## Zerbitzuari buruzko balorazio-galdetegia 2023-24

Galde-sorta honen bidez jakin nahi dugu ea zerbitzuak zure ikastegiarentzat merezi izan duen.

Emandako informazioa konfidentzialtasunez erabiliko da.

\* Indica que la pregunta es obligatoria

1. Ikastegia / Erakundea / Elkarteak \*

\_\_\_\_\_

2. Ikaslea(k) \*

\_\_\_\_\_

*Salta a la pregunta 3*

3. Irakasleak lortu da...

*Marca solo un óvalo por fila.*

	GUZTIZ ados	NAHIKO ados	EZ OSO ados	BATERE ados	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi
...teoria eta praktika gaurko hezkuntza errealitatearekin lotzea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
...irakaskuntza eta ikaskuntzarekin lotutako arazoak konpontzea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
...ezagutza berria sortzea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

4. Zerbitzua jaso dutenak (ikastetxeko ikasleak, erakundeko erabiltzaileak, elkarteko bazkideak...)\*

Marca solo un óvalo por fila.

	GUZTIZ ados	NAHIKO ados	EZ OSO ados	BATERE ados	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi
Zuk ikusi eta entzundakoaren arabera, burututako eskuhartzea arrakastatsua izan da?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Burututako eskuhartzea egokia eta eraginkorra izan da zerbitzua jaso dutenentzat (ikastetxeko ikasleentzat, erakundeko erabiltzaileentzat, elkarteko bazkideentzat...)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Iruditzen zaizu horrelako ekimenekin parte hartzen dutenek (ikastetxeko ikasleek, erakundeko erabiltzaileek, elkarteko bazkideek...) euskararen gaitasuna eta erabilera hobetzen dutela?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

5. Eskolafze-prozesuak hobetu \*

Marca solo un óvalo por fila.

	GUZTIZ ados	NAHIKO ados	EZ OSO ados	BATERE ados	Ez dakit / Ez dut erantzun nahi
Hobekuntza/berrikuntza proiektuak baliagarriak dira irakaslegaientzat eskolan garatu beharko dituzten gaitasunak hobetzeko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaientzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoan aurrean autonomia erakusteko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaientzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoan aurrean hausnarketa egiteko eta argudiatzeko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaientzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoan aurrean iritzi akademiko eta profesionalak emateko?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Uste duzu irakaslegaien profil profesionalerako onuragarriak direla horrelako ekimenak?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Ikastetxerako/erakunderako/elkarterako... onuragarria izan da horrelako ekimen batean parte hartzea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Gustatuko litzazuke hurrengo urtean horrelako zerbait egitea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

Zure esperientzia eta iritzia modu irekian

6. Hezkuntza Fakultateko zerbitzua jaso behar zenutela jakin zenuenenean, zer-nolako inpresioa hartu zenion gaiari? Eta ondoren, espero zenuen bezala izan da?

---

---

---

---

---

7. Aberasgarria izan da horrelako ekimen edo proiektu batean parte hartzea? Zergatik? Zer-nolako abantailak eta desabantailak ditu horrelako esperientzia batek?

---

---

---

---

---

8. Aberasgarria izan da horrelako ekimen edo proiektu batean parte hartzea? Zergatik? Zer-nolako abantailak eta desabantailak ditu horrelako esperientzia batek?

---

---

---

---

---

9. Nola hobetu daiteke prozesu hau?

---

---

---

10. Amaitzeko, oro har, nola baloratuko zenuke esperientzia? Adjektibo pare bat eman.

---

---